A EREDUA / MODELO A

MEDIKUA

Ezagutza teorikoen proba

A) atala

MÉDICO/A

Prueba de conocimientos teóricos

Apartado A)

Erref. - Ref.: OP2018/04

KONTUZ: Erantzunen Orriko 240. galderan, adierazi zein ariketa eredu egokitu zaizun: “A” aukera.

ATENCIÓN: Indique en la pregunta nº 240 de la Hoja de Respuestas el modelo de cuestionario que le ha correspondido: opción “A”.

ERANTZUNEN ORRIA / HOJA DE RESPUESTAS

	A	B	C	D
240	■			

Galdera bakoitzeko launa erantzun daude, aurretik letra hauek dituztenak: “A”, “B”, “C” eta “D”. Erantzun zuzena, ordea, bat bakarra da. Erantzunen Orrian ontzat eman duzun erantzunari dagokion letra markatu behar duzu, bertan erakusten den bezala.

Aurrena, galdera orrian erantzun, eta gero Erantzunen Orrian kopiatu ezazu egin duzun aukera hori. Kontuz ibili kopiatzerakoan, eta gaizki markatu baduzu, eskatu laguntza zaintzaile bati.

EZ AHAZTU: Erantzunen Orrian markatu aukeratu duzun erantzuna. Erantzun bat bakarra markatu.

Azterketaren bukaeran erreserbako 5 galdera daude eta aurreko galderaren bat baliogabetuz gero bakarrik ebaluatuko dira.

Azterketako galderak: 1etik 50era
Erreserbako galderak: 51tik 55era

En cada pregunta hay 4 posibles respuestas, precedidas de las letras "A”, “B”, “C” y “D”, de las que sólo una es correcta. Debe marcar en la Hoja de Respuestas la letra que corresponda a la solución, tal como se señala en la misma.

Conteste primero en el cuadernillo y copie después la opción seleccionada en la Hoja de Respuestas. Tenga cuidado al copiar y si se equivoca, pida ayuda a un/a cuidador/a.

RECUERDE: marque la solución en la Hoja de Respuestas y marque sólo una respuesta.

El examen tiene al final del ejercicio 5 preguntas de reserva que sólo se evaluarán en el supuesto de anularse alguna pregunta.

Preguntas de examen: de la 1 a la 50
Preguntas de reserva: de la 51 a la 55

KONTUZ: Ezagutza teorikoen probaren A) atalean erantzun okerrek penalizazioa dute (1/4)

ATENCIÓN: En la prueba de conocimientos teóricos apartado A) las respuestas erróneas penalizan (1/4)

OSO GARRANTZITSUA

LAUKITXOAK ONDO MARKATU

ONDO BIEN



GAIZKI MAL



GAIZKI MAL



MUY IMPORTANTE

MARQUE CORRECTAMENTE LAS CASILLAS

GAIZKI MAL



GAIZKI MAL



GAIZKI MAL



EZ PASA ORRIA, PASATZEKO ESATEN DEN ARTE!!!

¡¡¡NO VUELVA LA HOJA HASTA QUE SE LE INDIQUE!!!

Irun, 2019-06-14

Irún, 14-06-2019

1. Nola egingo dira, ahal dela, jakinarazpenak?

A - Bitarteko elektronikoz, eta interesduna bide horretatik jasotzera behartuta badago, beti egingo dira horrela.

B - Posta bitartez, interesduna bitarteko elektronikoz jasotzera behartuta dagoenean izan ezik.

C - Berdin da posta bidez edo bitarteko elektronikoz egin, Administrazioak hautatuko du, interesdunari entzun ondoren.

D - Egoitza administratiboan.

2. Gaztelania:

A - Espainiako hizkuntza bakarra da.

B - Espainiako hizkuntza ofizial bakarra da.

C - Espainiako estatuaren hizkuntza ofiziala da.

D - Espainiako estatuaren hizkuntza ofiziala da, Espainiako gainerako hizkuntzak bezala.

3. Gobernuak.

A - Ahal jurisdikzionala du.

B - Aurrekontuak onartzen ditu.

C - Erregelamenduak emateko ahala du.

D - Legegintzarako ahala du.

4. 3/2018 Lege Organikoak, abenduaren 5ekoak, datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoak, xedatutakoaren arabera, nola uztartzen dira lege organiko horrek ezarritako sekretu betebeharra eta medikuaren sekretu profesionalaren betebeharra?

A - Lehentasuna du medikuaren sekretu profesionalak, izaera pertsonaleko datuen babesaren aurretik.

B - Lehentasuna du izaera pertsonaleko datuen babesak, medikuaren sekretu profesionalaren aurretik.

C - Biak osagarriak dira.

D - Ezin dira biak batera gertatu; izan ere, 3/2018 Lege Organikoa ez da aplikagarria osasunarekin lotutako datu pertsonalen arloan.

5. Beren tradizio historikoaren arabera, zein dira lurralde historikoetako foru organoak?

A - Diputazio probintzialak.

B - Foru aldundien osoko bilkurak.

C - Batzar nagusiak eta foru aldundiak.

D - Foru diputatuak.

1. Las notificaciones se practicarán preferentemente:

A - Por medios electrónicos y, en todo caso, cuando la persona interesada resulte obligada a recibirlas por esta vía.

B - Por medios postales, salvo que la persona interesada resulte obligada a recibirlas por vía electrónica.

C - Indiferentemente por medios postales o electrónicos, a elección de la Administración previa audiencia a la persona interesada.

D - En sede administrativa.

2. El castellano:

A - Es la única lengua española.

B - Es la única lengua oficial española.

C - Es la lengua española oficial del Estado.

D - Es la lengua española oficial del Estado, al igual que el resto de lenguas españolas.

3. El Gobierno:

A - Ejerce la potestad jurisdiccional.

B - Aprueba los Presupuestos.

C - Ejerce la potestad reglamentaria.

D - Ejerce la potestad legislativa.

4. Según la Ley orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos de Personales y garantía de los derechos digitales, ¿cómo casa el deber de secreto impuesto en esta Ley orgánica con el deber médico de secreto profesional?

A - Prevalece el secreto médico profesional sobre la protección de datos de carácter personal.

B - Prevalece la protección de datos de carácter personal sobre el secreto médico profesional.

C - Ambos serán complementarios.

D - No puede darse la confluencia entre ambos, ya que la Ley Orgánica 3/2018 no es de aplicación a datos personales relacionados con la salud.

5. De acuerdo con su tradición histórica, son Órganos Forales de los Territorios Históricos:

A - Las diputaciones provinciales.

B - Los Plenos de las diputaciones forales.

C - Las Juntas Generales y las Diputaciones Forales.

D - Los diputados forales.

6. Zer eskumen har ditzakete autonomia erkidegoek?

A - Legegintza prozesala.
B - Legeria laborala.
C - Jabetza intelektualari buruzko legegintza.
D - Nekazaritza eta abeltzaintza.

7. Nola deitzen dira Batzar Nagusiek, dagokien araugintzarako ahalmenaren indarrez, ematen dituzten xedapenak?

A - Foru dekretuak.
B - Foru arauak.
C - Foru aginduak.
D - Erabakiak.

8. Zeinek osatzen du Europar Batasuneko Justizia Auzitegia?

A - Hagako Nazioarteko Auzitegiak.
B - Justizia Auzitegiak eta Auzitegi Orokorrak.
C - Giza Eskubideen Europako Auzitegiak.
D - Estatu kideetako Auzitegi Gorenek.

9. Ondokoetatik zein EZ da funtsezko hizkuntza eskubidea, 10/1982 Legeak, azaroaren 24koak, xedatutakoaren arabera?

A - Administrazioarekin harremanak euskaraz zein gaztelaniaz izateko eskubidea, ahoz nahiz idatziz.
B - Euskadin kokatutako enpresekin harremanak euskaraz zein gaztelaniaz izateko eskubidea.
C - Jarduera profesionalak, laboralak, politikoak eta sindikalak euskaraz garatzeko eskubidea.
D - Irakaskuntza bi hizkuntza ofizialetan jasotzeko eskubidea.

10. Askatasun publikoen eta oinarrizko eskubideen babesa eskatzeko babes errekurtsoa aurkez daiteke:

A - Auzitegi Konstituzionalaren aurrean.
B - Entzutegi Nazionalaren aurrean.
C - Auzitegi arrunten aurrean.
D - Arartekoaren aurrean.

6. Las Comunidades Autónomas podrán asumir competencias en:

A - Legislación procesal.
B - Legislación laboral.
C - Legislación sobre propiedad intelectual.
D - La agricultura y ganadería.

7. Las disposiciones emanadas de las Juntas Generales de Gipuzkoa en virtud de su potestad normativa se denominan:

A - Decretos Forales.
B - Normas Forales.
C - Ordenes Forales.
D - Acuerdos.

8. El Tribunal de Justicia de la Unión Europea comprenderá:

A - El Tribunal Internacional de la Haya.
B - El Tribunal de Justicia y el Tribunal General, entre otros.
C - Tribunal Europeo de Derechos Humanos.
D - Los Tribunales Supremos de los Estados Miembros.

9. ¿Cuál de los siguientes NO es un derecho lingüístico fundamental según la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera?

A - Derecho a relacionarse en euskera o en castellano oralmente o por escrito con la Administración.
B - Derecho a relacionarse en euskera o en castellano con las empresas radicadas en el País Vasco.
C - Derecho a desarrollar actividades profesionales, laborales, políticas y sindicales en euskera.
D - Derecho a recibir la enseñanza en ambas lenguas oficiales.

10. Para recabar la tutela de las libertades públicas y derechos fundamentales cabrá interponer recurso de amparo:

A - Ante el Tribunal Constitucional.
B - Ante la Audiencia Nacional.
C - Ante los tribunales ordinarios.
D - Ante el Defensor del Pueblo.

11. Eusko Legebiltzarrak legegintzarako ahala du:

A - Foru erakundeen eskumenei kalterik eragin gabe.

B - Autonomia Erkidegoaren eskumen esklusibo diren gai guztietan.

C - Ekonomia Itunean jasota dauden zerga arloko gai guztietan.

D - Probintzien mugak gainditzen ez dituzten udalez gaindiko lurralde barrutien gaietan.

12. Ahal jurisdikzionala egikaritzeak barruan hartzen du:

A - Desjabetzeko ahala.

B - Epaitutakoa betearaztea.

C - Zerga ahala.

D - Araugintzako ahala.

13. Euskadiko Autonomia Erkidegoaren eskumen esklusiboa da:

A - Gizarte laguntza.

B - Ibilgailu motordunen trafikoa eta zirkulazioa.

C - Posta eta telekomunikabideak.

D - Meategien araubidearen oinarriak.

14. Ondokoetatik zer da GEZURRA Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarduera publikoaren gardentasunari buruz?

A - Informazio publikoaren komunikazioak eta argitalpenak egintza administratiboen legezko jakinarazpenaren balioa izango dute baita ere.

B - Gipuzkoako Foru Aldundiaren gardentasun jarduera publikoa ahalik eta irisgarritasunik handienaren printzipioan oinarritzen da.

C - Informazio publikoak egiazkoa, objektiboa eta eguneratua izan behar du, eta gardentasun xedeak betetzeko egokia.

D - Gipuzkoako Foru Aldundiak ahalik eta modurik ulergarrienean emango du informazio publikoa.

15. Noiz EZ dago Administrazioa behartuta ebazpena berariaz ematera eta jakinaraztera?

A - Interesdunak prozeduran atzera egiten duenean.

B - Interesdunak bere eskubideari uko egiten dionean.

C - Gai berberagatik beste ebazpen bat emanda dagoenean.

D - Administrazioa behartua dago prozedura guztietan ebazpena berariaz ematera eta jakinaraztera.

11. El Parlamento Vasco ejerce la potestad legislativa:

A - Sin perjuicio de las competencias de las Instituciones Forales.

B - En todas las materias de competencia exclusiva de la Comunidad Autónoma.

C - En todas las materias de orden tributario incluidas en el Concierto Económico.

D - En materia de demarcaciones territoriales de ámbito supramunicipal que no excedan los límites provinciales.

12. El ejercicio de la potestad jurisdiccional incluye:

A - La potestad expropiatoria.

B - Hacer ejecutar lo juzgado.

C - La potestad tributaria.

D - La potestad normativa.

13. La Comunidad Autónoma del País Vasco tiene competencia exclusiva en:

A - Asistencia social.

B - Tráfico y circulación de vehículos a motor.

C - Correos y telecomunicaciones.

D - Bases del régimen minero.

14. ¿Cuál de las siguientes afirmaciones sobre la transparencia de la actividad pública de la Diputación Foral de Gipuzkoa es FALSA?

A - La comunicación y publicación de información pública servirá también a los efectos de notificación legal de actos administrativos.

B - La actividad pública de transparencia de la Diputación Foral de Gipuzkoa se rige por el principio de máxima accesibilidad.

C - La información pública ha de ser veraz, objetiva y actualizada, y adecuada al cumplimiento de los fines de la transparencia.

D - La Diputación Foral de Gipuzkoa facilitará la información pública en la forma que resulte más comprensible.

15. ¿En qué supuestos la Administración NO está obligada a dictar resolución expresa y a notificarla?

A - Cuando el o la interesada desista del procedimiento.

B - Cuando el o la interesada renuncie a su derecho.

C - Cuando ya hubiese dictado otra resolución por un asunto idéntico.

D - La Administración está obligada a dictar resolución expresa y a notificarla en todos los procedimientos.

16. Noiz aurkeztu daitezke dokumentuak administrazio publikoen erregistro elektronikoan?

A - Urteko egun guztietan hogeita lau orduetan.

B - Egun baliodunetako hogeita lau orduetan, eta ez du utziko egun baliogabeetan erregistratzen, dagokion Administrazioaren egutegi ofizialaren arabera.

C - 08:00etatik 20:00etara, egun baliodunetan bakarrik.

D - Erregistroko bulego presentzialak paperezko dokumentuak aurkezteko jendearentzako duen ordutegi berbera izango du.

17. Ondokoetatik, zein eskumen esklusibo dute Lurralde Historikoko foru organoek?

A - Foru Zuzenbide Zibila eta berezia gordetzea, aldatzea eta garatzea.

B - Mendiak, baso ustiaketak eta zerbitzuak.

C - Gizarte laguntza.

D - Antolamendu farmazeutikoa.

18. Zein da zerga sistemaren antolamenduaren oinarrietako bat?

A - Zergapetze bikoitza.

B - Zergak ordaintzera behartuta dauden pertsonen gaitasun ekonomikoa.

C - Oinarrizko zerbitzu publikoak estaltzeko diru funtsen bilketa.

D - Konfiskagarritasuna.

19. Zeinek du eskumena Berdintasunerako Foru Plana onartzeko?

A - Eusko Legebiltzarrak.

B - Gipuzkoako Foru Aldundiak.

C - Batzar Nagusiek.

D - Emakundek.

20. Nork kontrolatzen du administrazio publikoak duen erregelamenduak emateko ahala?

A - Gobernuko presidenteak.

B - Auzitegiek.

C - Biltzar legegileek.

D - Estatu Kontseiluak.

16. El funcionamiento del registro electrónico de las Administraciones Públicas permitirá la presentación de documentos:

A - Todos los días del año durante las veinticuatro horas.

B - Las veinticuatro horas de los días hábiles, y no permitirá el registro en días inhábiles según el calendario oficial de la Administración correspondiente.

C - De 8:00 a 20:00 de los días hábiles, exclusivamente.

D - Tendrá el mismo horario de apertura al público que tenga la oficina presencial de registro en papel.

17. Los Órganos Forales de los Territorios Históricos tienen competencia exclusiva en materia de:

A - Conservación, modificación y desarrollo del Derecho Civil Foral y especial.

B - Montes, aprovechamientos y servicios forestales.

C - Asistencia social.

D - Ordenación farmacéutica.

18. La ordenación del sistema tributario se basa en:

A - La doble imposición.

B - La capacidad económica de las personas obligadas a satisfacer los tributos.

C - La recaudación de fondos para cubrir la prestación de los servicios públicos básicos.

D - La confiscatoriedad.

19. ¿Quién tiene la competencia para aprobar el plan foral para la igualdad?

A - El Parlamento Vasco.

B - La Diputación Foral de Gipuzkoa.

C - Las Juntas Generales.

D - Emakunde.

20. ¿Quién controla el ejercicio de la potestad reglamentaria de la Administración Pública?

A - El Presidente de Gobierno.

B - Los tribunales.

C - Las Asambleas legislativas.

D - El Consejo de Estado.

21. 4/2014 Foru Arauak, otsailaren 6koak, gardentasunari eta informazio publikoa eskuratzeari buruzkoak, xedatutakoaren arabera, nola deitzen zaio publizitate aktiboaren obligaziopean dagoen informazio publikoa jende aurrean jarriko den tokiari?

A - Gardentasun ataria.

B - Informazioa eskuratzeko eskaerak ebazteko egoitza elektronikoa.

C - Informazio eta Sarbide Erregistro Nagusia.

D - Gardentasun egoitza elektronikoa.

22. Zer da xedapen administratibo bat, Konstituzioa, legeak edo bere maila baino goragoko xedapenak urratzen dituenean, edo legez arautu beharreko gaiak arautzen dituenean?

A - Erabat deusezak.

B - Deuseztagarriak.

C - Baliogabeak.

D - Eraginik gabeak.

23. Nor EZ dago behartuta administrazio prozedura baten edozein izapidetarako, administrazio publikoekin harremanak bitarteko elektronikoz izatera?

A - Pertsona fisikoak.

B - Pertsona juridikoak.

C - Diharduten jarduera profesionalean jarduteko elkargo bateko kide izan behar dutenak, jarduera profesional hori dela-eta administrazio publikoekin egin behar dituzten izapide eta jarduketetarako.

D - Administrazio publikoetako enplegatuak, enplegatu publiko gisa haiekin egin behar dituzten izapide eta jarduketetarako.

24. Estatuaren zuzenbidea:

A - Autonomia erkidegoen zuzenbidearen ordezkoa izan daiteke.

B - Autonomia erkidegoen zuzenbidearen ordezkoa izango da beti.

C - Ezin izango da autonomia erkidegoen zuzenbidearen ordezkoa.

D - Autonomia erkidegoen zuzenbidearen ordezkoa izango da, Gobernuak hala erabakitzen duenean.

25. Zer eskumen har ditzakete autonomia erkidegoek?

A - Nazionalitatea, immigrazioa, emigrazioa, atzerritartasuna eta asilorako eskubidea.

B - Nazioarteko harremanak.

C - Mendiak eta baso ustiaketak.

D - Merkataritza, zigor eta espetxe arloetako legegintza

21. Según la Norma Foral 4/2014, de 6 de febrero, de transparencia y acceso a la información pública, ¿cómo se denomina el lugar donde se podrá a disposición del público la información sujeta a las obligaciones de publicidad activa?

A - Portal de Transparencia.

B - Sede electrónica de resolución de peticiones de acceso.

C - Registro General de Información y acceso.

D - Sede electrónica de transparencia.

22. Las disposiciones administrativas que vulneren la Constitución, las leyes u otras disposiciones administrativas de rango superior o las que regulen materias reservadas a la Ley serán:

A - Nulas de pleno derecho

B - Anulables

C - Inválidas

D - Ineficaces.

23. ¿Quién NO está obligado a relacionarse a través de medios electrónicos con las Administraciones Públicas para la realización de cualquier trámite de un procedimiento administrativo?

A - Las personas físicas.

B - Las personas jurídicas.

C - Quienes ejerzan una actividad profesional para la que se requiera colegiación obligatoria, para los trámites y actuaciones que realicen con las Administraciones Públicas en ejercicio de dicha actividad profesional.

D - Los empleados y empleadas de las Administraciones Públicas para los trámites y actuaciones que realicen con ellas por razón de su condición de empleado público.

24. El derecho estatal:

A - Podrá ser supletorio del derecho de las Comunidades Autónomas.

B - Será, en todo caso, supletorio del derecho de las Comunidades Autónomas.

C - No podrá ser supletorio del derecho de las Comunidades Autónomas.

D - Será, cuando así lo decida el Gobierno, supletorio del derecho de las Comunidades Autónomas.

25. Las Comunidades Autónomas podrán asumir competencias en:

A - Nacionalidad, inmigración, emigración, extranjería y derecho de asilo.

B - Relaciones internacionales.

C - Los montes y aprovechamientos forestales.

D - Legislación mercantil, penal y penitenciaria.

26. Noiz jarri daiteke berrikusteko errekurtso berezia?

A - Administrazio bidean irmo diren egintzetan.
B - Epai judiziala jaso duten egintzetan.
C - Gaiaren funtsean zuzeneko edo zeharkako eragina duten tramitezko egintzetan.
D - Hierarkian goragokorik ez duten administrazio organoen ebazpenetan.

27. Zein EZ da administrazio publikoen nahitaezko betearazpen mota bat, 39/2015 Legean aurreikusia?

A - Ondarearekiko premiamendua.
B - Hertsatzeko isuna.
C - Betearazte subsidiarioa.
D - Atxilotze prebentiboa.

28. Zer gai EZ dago lege organikorako erreserbatua?

A - Oinarrizko eskubide eta askatasun publikoen garapena.
B - Hauteskunde araubide orokorra.
C - Administrazio publikoen antolamendua.
D - Autonomia estatutuen onespena.

29. Hizkuntza eskakizuna:

A - Lanpostua betetzeko eta horretan jarduteko behar den euskarazko gaitasuna zehazten duena da.
B - Nahitaezko baldintza izango da funtzio publikoan sartzeko, baita bete beharreko plazak derrigorrezko hizkuntza eskakizuna ez duenean ere.
C - Euskaltzaindiak zehaztutako edukiarekin eta probekin egiaztatuko da.
D - Euskal administrazio publikoek onartutako Euskaren Erabilera Planetan sortu eta konfiguratu dira legez.

30. Funtzio publikoaren araudian, zein EZ da administrazio publikoen zerbitzura ari den pertsonal mota bat?

A - Behin-behineko langileak.
B - Lan kontratudun finkoak.
C - Bitarteko funtzionarioak.
D - Zuzendaritzako pertsonala.

26. Cabe recurso extraordinario de revisión ante:

A - Actos firmes en vía administrativa.
B - Actos sobre los que ha recaído sentencia judicial.
C - Actos de trámite que deciden directa o indirectamente sobre el fondo del asunto.
D - Las resoluciones de los órganos administrativos que carezcan de superior jerárquico.

27. NO es un medio de ejecución forzosa por las Administraciones Públicas previstos en la Ley 39/2015:

A - Apremio sobre el patrimonio.
B - Multa coercitiva.
C - Ejecución subsidiaria.
D - Detención preventiva.

28. ¿Qué materia NO está reservada a ley orgánica?

A - Desarrollo de los derechos fundamentales y de las libertades públicas.
B - Régimen electoral general.
C - La organización de las Administraciones Públicas.
D - Aprobación de los Estatutos de Autonomía.

29. El perfil lingüístico:

A - Determina el nivel de competencia lingüística en euskera necesario para la provisión y desempeño del puesto de trabajo.
B - Será exigencia obligatoria para el acceso a la función pública aun cuando el perfil lingüístico no sea preceptivo en la plaza a cubrir.
C - Será acreditado con el contenido y las pruebas que determine Euskaltzaindia.
D - Se ha creado y configurado legalmente mediante los Planes de Normalización de uso de Euskera aprobados por las Administraciones Públicas vascas.

30. NO es una clase de personal al servicio de las administraciones públicas en el ámbito de la normativa de función pública:

A - Personal eventual.
B - Personal laboral fijo.
C - Funcionario interino.
D - Personal directivo.

31. Zein da hizkuntza eskakizunak egiaztatzen dituen eta hizkuntza eskakizun bakoitza egiaztatzeko behar den euskara gaitasuna ebaluatzeko proben edukia eta forma zehazten dituen erakundea edo entea, administrazio publiko guztietarako?

A - Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea.
B - Eusko Jaurlaritzan hizkuntza politikaren ardura duen saila.
C - Euskaltzaindia.
D - HABE erakundea.

32. Noren aurrean baliarazi ahalko dira administrazio isiltasunez gertatutako administrazio egintzak?

A - Epearen barruan erantzun eta jakinarazi ez zuen Administrazioaren aurrean bakarrik.
B - Administrazioaren aurrean eta edozein pertsona fisiko edo juridiko, publiko edo pribaturen aurrean.
C - Dagokion Administrazio publikoaren lurralde esparruan kokaturiko pertsona juridikoen aurrean bakarrik.
D - Pertsona fisiko edo juridiko publikoen aurrean bakarrik

33. Zein da botere publikoen jarduketa osoa Konstituzioaren eta gainerako antolamendu juridikoaren mende dagoela dioen printzipioa?

A - Hierarkia normatiboaren printzipioa.
B - Legezkotasunaren printzipioa.
C - Demokraziaren printzipioa.
D - Europar Zuzenbidearen nagusitasunaren printzipioa.

34. Tributuak honela sailkatzen dira:

A - Zergak, tasak eta prezio publikoak.
B - Tasak, kontribuzio bereziak eta zergak.
C - Zuzeneko eta zeharkako zergak.
D - Zergak eta prezio publikoak.

35. Atxiloketa prebentiboak ezin du iraun egitateak argitzeko behar diren ikerketak egiteko ezinbestekoa den denbora baino gehiago.

A - Eta, betiere, gehienez hogeita lau ordu igaro ondoren, atxilotua askatua izango da, edo, bestela, agintaritza judizialaren esku geratuko da.
B - Eta, betiere, gehienez hogeita hamasei ordu igaro ondoren, atxilotua askatua izango da, edo, bestela, agintaritza judizialaren esku geratuko da.
C - Eta, betiere, gehienez berrogeita zortzi ordu igaro ondoren, atxilotua askatua izango da, edo, bestela, agintaritza judizialaren esku geratuko da.
D - Eta, betiere, gehienez hirurogei eta hamabi ordu igaro ondoren, atxilotua askatua izango da, edo, bestela, agintaritza judizialaren esku geratuko da.

31. El ente u órgano encargado de la acreditación del cumplimiento de los perfiles lingüísticos y que determina el contenido y forma de las pruebas destinadas a la evaluación del conocimiento del euskera necesario en cada caso y para la totalidad de las Administraciones Públicas vascas es:

A - El Instituto Vasco de Administración Pública.
B - El Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de Política Lingüística.
C - Euskaltzaindia.
D - El instituto HABE.

32. ¿Ante quién se puede hacer valer los actos administrativos producidos por silencio administrativo?

A - Exclusivamente ante la Administración que no respondió y notificó en plazo.
B - Ante la Administración y ante cualquier persona física o jurídica, pública o privada.
C - Sólo ante personas jurídicas radicadas en el ámbito territorial de la Administración pública correspondiente.
D - Sólo ante personas físicas o jurídicas públicas.

33. El principio por el cual toda la actuación de los poderes públicos está sometida a la Constitución y al resto del ordenamiento jurídico se denomina

A - Principio de jerarquía normativa.
B - Principio de legalidad.
C - Principio de democracia.
D - Principio de primacía del Derecho Europeo.

34. Los tributos se clasifican en:

A - Impuestos, tasas y precios públicos.
B - Tasas, contribuciones especiales e impuestos.
C - Impuestos directos e indirectos.
D - Impuestos y precios públicos.

35. La detención preventiva no podrá durar más del tiempo estrictamente necesario para la realización de las averiguaciones tendentes al esclarecimiento de los hechos:

A - Y, en todo caso, en el plazo máximo de veinticuatro horas el detenido deberá ser puesto en libertad o a disposición de la autoridad judicial.
B - Y, en todo caso, en el plazo máximo de treinta y seis horas el detenido deberá ser puesto en libertad o a disposición de la autoridad judicial.
C - Y, en todo caso, en el plazo máximo de cuarenta y ocho horas el detenido deberá ser puesto en libertad o a disposición de la autoridad judicial.
D - Y, en todo caso, en el plazo máximo de setenta y dos horas el detenido deberá ser puesto en libertad o a disposición de la autoridad judicial.

36. Konstituzioak:

A - Eskatzen du erreforma konstituzionala egitea nazionalitate eta herrialdeen autonomiarako eskubidea aitortzeko.

B - Aitortu egiten du nazionalitate eta herrialdeen autonomiarako eskubidea.

C - Ez du bermatzen nazionalitate eta herrialdeen autonomiarako eskubidea.

D - Sustatu egingo du nazionalitate eta herrialdeen autonomiarako eskubidea aitortzea.

37. Informazio publikoa eskuratzeko eskaera:

A - Anonimoa izan daiteke.

B - Informazioa eskuratzeko arrazoiak zuritu egin behar dira.

C - Informazioa duen organo administratibo edo entitatearen titularrari zuzendu behar zaio.

D - Konstituzioaren 29. artikuluko eskaera eskubide bat da.

38. Probintziek:

A - Udalerrien autonomia berbera dute, beren interesak kudeatzeko.

B - Udalerriek baino autonomia txikiagoa dute, beren interesak kudeatzeko.

C - Udalerriek baino autonomia handiagoa dute, beren interesak kudeatzeko.

D - Ez dute autonomiarik, beren interesak kudeatzeko.

39. Nork osatzen du Europako Kontseilua?

A - Estatu kide bakoitzak izendatutako letratuek.

B - Europako Batzordeak izendatutako letratuek.

C - Estatu kideetako estatuburuek edo gobernuburuek.

D - Estatu kideetako arlo bakoitzeko ministroek.

40. 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, xedatutakoaren ondorioetarako, pertsona anitzeko administrazio organoetan ordezkaritza orekatua dago bi sexuek gutxienez proportzio hau dutenean:

A - % 20.

B - % 30.

C - % 35.

D - % 40.

36. La Constitución:

A - Exige la reforma constitucional para el reconocimiento del derecho a la autonomía de las nacionalidades y regiones.

B - Reconoce y garantiza el derecho a la autonomía de las nacionalidades y regiones.

C - No garantiza el derecho a la autonomía de las nacionalidades y regiones.

D - Promoverá el reconocimiento del derecho a la autonomía de las nacionalidades y regiones.

37. La solicitud de acceso a la información pública:

A - Puede ser anónima.

B - Debe justificar los motivos por los que desea acceder a la información.

C - Deberá dirigirse al titular del órgano administrativo o entidad que posea la información.

D - Es un derecho de petición del art. 29 de la Constitución.

38. Las Provincias:

A - Gozan de idéntica autonomía que los municipios para la gestión de los intereses respectivos.

B - Gozan de menor autonomía que los municipios para la gestión de los intereses respectivos.

C - Gozan de mayor autonomía que los municipios para la gestión de los intereses respectivos.

D - No gozan de autonomía para la gestión de los intereses respectivos.

39. El Consejo Europeo estará compuesto por:

A - Los letrados designados por cada Estado miembro.

B - Los letrados designados por la Comisión Europea.

C - Los Jefes de Estado o de Gobierno de los Estados miembros.

D - Los ministros de cada ramo de los Estados miembros.

40. A los efectos de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, se considera que existe una representación equilibrada en los órganos administrativos pluripersonales cuando los dos sexos están representados al menos:

A - Al 20%.

B - Al 30%.

C - Al 35%.

D - Al 40%.

41. Ondokoetatik zein EZ da emakume eta gizonen berdintasunaren arloan euskal herri aginteen jarduketa gidatu eta bideratu behar duen printzipio orokorra?

A - Tratu berdintasuna.

B - Sexuaren araberako rolak eta estereotipoak desagerraraztea.

C - Ekintza positiboa.

D - Arauen edo egintza administratiboen genero eraginaren ebaluazioa.

42. Ondokoetatik zein da EGIA?

A - Informazio publikoa eskuratzeko eskaera baietsi edo ezetsi duen ebazpena ezin da errekurritu administrazioarekiko auziaren bidean.

B - Informazio publikoa eskuratzeko eskaerari erantzuteko ebazpena gehienez ere sei hilabeteko epean eman eta jakinarazi beharko da, ebazteko eskumena duen organoan eskaera jaso zenetik hasita.

C - Informazioa eskuratzeko eskaera berariaz ebazteko eta jakinarazteko legezko gehienezko epea igarota, eskaera baietsia izango dela ulertuko da.

D - Informazioa eskuratzeko eskaera parte batean bakarrik baiesten duten ebazpenek, besteak beste, arrazoituak izan behar dute.

43. Zer bermatzen du Konstituzioak?

A - Arauen publizitatea.

B - Aldekoak ez diren xedapen zigortzaileen atzeraeragina.

C - Xedapen zigortzaileek, eskubide indibidualen murrizgarri direnean, atzeraeragina izatea.

D - Jarduketa publikoen publizitatea.

44. Zein da zergagai zergetan?

A - Herrilanak eginagatik edo zerbitzu publikoen ezarpen edo zabalkuntzagatik subjektu pasiboak hobekuntzak lortzea edota haren ondasunen balioa gehitzea.

B - Zergadunaren gaitasun ekonomikoa agerian uzten duten negozio, egintza edo gertakariak.

C - Jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia.

D - Sektore pribatuak eskaintzen ez dituen zuzenbide publikoaren araubideko prestazioak edo zerbitzuak ematea.

41. ¿Cuál de los siguientes NO es un principio general que debe regir y orientar la actuación de los poderes públicos vascos en materia de igualdad de mujeres y hombres?

A - La igualdad de trato.

B - La eliminación de roles y estereotipos en función del sexo.

C - La acción positiva.

D - La evaluación de impacto de género de normas o acto administrativos.

42. ¿Cuál de las siguientes afirmaciones es VERDADERA?

A - La resolución que conceda o deniegue la solicitud de acceso a información pública es irrecurrible en vía contencioso-administrativa.

B - La resolución que dé respuesta a la solicitud de acceso a información pública deberá dictarse y notificarse en el plazo máximo de seis meses desde la recepción de la solicitud por el órgano competente para resolver.

C - Trascurrido el plazo máximo legal para el dictado y notificado de la resolución expresa de la solicitud de acceso, se entenderá que la solicitud ha sido estimada.

D - Serán motivadas, entre otras, las resoluciones de acceso a información pública cuando concedan el acceso parcial.

43. La Constitución garantiza:

A - La publicidad de las normas.

B - La retroactividad de las disposiciones sancionadoras no favorables.

C - La retroactividad de las disposiciones sancionadoras restrictivas de derechos individuales.

D - La publicidad de las actuaciones públicas.

44. ¿Cuál es el hecho imponible de los impuestos?

A - La obtención por el obligado tributario de un beneficio o de un aumento de valor de sus bienes como consecuencia de la realización de obras públicas o del establecimiento o ampliación de servicios públicos.

B - Los negocios, actos o hechos que ponen de manifiesto la capacidad económica del contribuyente.

C - La utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público.

D - La prestación de servicios o la realización de actividades en régimen de derecho público que no se presten por el sector privado.

45. Zein proportziotan egon behar dira bi sexuak ordeztuta Eusko Jaurlaritzan?

A - % 50ean
B - Gutxienez % 40an.
C - Gutxienez % 30ean.
D - Gutxienez % 25ean.

46. Zer du oinarri Autonomia Erkidegoaren erakunde antolaketak?

A - Biltzar legegilea.
B - Auzitegi konstituzional bat.
C - Toki Administrazioa.
D - Senatua.

47. Zer izaera du Gipuzkoako Foru Enplegu Publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodeak?

A - Prebentiboa eta orientatzailea.
B - Normatiboa, foru organoak araugintzarako dituen eskumenak garatuz emana.
C - Zehatzailea.
D - Lan baldintzen erregulatzailea, lan hitzarmenen gehigarri modura.

48. Europako Batzordeak:

A - Batasunaren Zuzenbidearen aplikazioa gainbegiratuko du.
B - Legegintzako eginkizuna gainbegiratuko du.
C - Eginkizun jurisdikzionala beteko du.
D - Batasunaren kanpo ordezkaritza izango du bere gain, edozein gaitan.

49. Bilerak iraganbide publikoetan egiteko edo agerraldiak burutzeko:

A - Bilerarako eskubidea erabiltzeko, aldez aurreko baimena beharko da armak eramango badira.
B - Bilerarako eskubidea erabiltzeko, aldez aurreko baimena beharko da.
C - Bilerarako eskubidea erabiltzeko, aldez aurretik komunikatu behar zaio agintaritzari.
D - Bilerarako eskubidea erabiltzeko, aldez aurretik komunikatu behar zaio agintaritza judizialari.

50. Lehendakari kargua bateragarria da:

A - Zinegotzi karguarekin.
B - Edozein motatako lanbide liberaleko, merkataritzako eta industriako jarduerekin.
C - Eusko Legebiltzarreko legebiltzarkide karguarekin.
D - Senatari karguarekin.

45. En el Gobierno Vasco ambos sexos estarán representados:

A - Al 50%.
B - Al menos en un 40%.
C - Al menos en un 30%.
D - Al menos en un 25%.

46. La organización institucional autonómica se basa en:

A - Una Asamblea legislativa.
B - Un Tribunal constitucional.
C - La administración local.
D - El senado.

47. El Código Ético y de Buena Gestión del Empleo Público Foral de Gipuzkoa tiene naturaleza:

A - Preventiva y orientadora.
B - Normativa, dictado en desarrollo de las competencias normativas en la materia del órgano foral.
C - Sancionadora.
D - Reguladora de las condiciones de trabajo, como adenda a los convenios laborales.

48. La Comisión Europea:

A - Supervisará la aplicación del Derecho de la Unión.
B - Ejercerá la función legislativa.
C - Ejercerá la función jurisdiccional.
D - Asumirá la representación exterior de la Unión en cualquier materia.

49. En los casos de reuniones en lugares de tránsito público y manifestaciones:

A - El derecho de reunión exigirá autorización previa cuando vayan a llevarse armas.
B - El derecho de reunión exigirá autorización previa.
C - El derecho de reunión exigirá comunicación previa a la autoridad.
D - El derecho de reunión exigirá comunicación previa a la autoridad judicial.

50. El cargo de Lehendakari es compatible con el ejercicio de:

A - El cargo de concejal.
B - Toda clase de profesiones liberales y actividades mercantiles e industriales.
C - El cargo de parlamentario en el Parlamento Vasco.
D - El cargo de senador.

51. Nori dagokio legegintzarako ahala, Konstituzioaren arabera?

A - Gorte Nagusiei.
B - Auzitegi Konstituzionalari.
C - Gobernuari.
D - Administrazioari.

52. 19/2013 Legeak, abenduaren 9koak, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoak, 15. artikuluan ezarritakoaren arabera, baietsi al daiteke informazio publikora iristeko eskaera bat, pertsonen osasunari buruzko datu pertsonalik eskatzen badu?

A - Bai, baina bakarrik afektatutako pertsonaren berariazko baimenarekin edota lege mailako arau batez babestutako eskaera bada.
B - Ez, ezetsi egin behar da kasu guztietan.
C - Bai, baina aldez aurretik behar beste arrazoituta ponderatu behar dira informazioaren zabalkundeak duen interesa eta afektatutako pertsonaren eskubidea, kasu horretan ez baita behar ez afektatuaren baimenik ez eta lege edo erregelamendu babesik.
D - Bai, inolako mugaketarik gabe.

53. Zein dira administrazio prozeduraren faseak?

A - Hasiera, antolamendua, instrukzioa eta amaiera.
B - Eskaera, zuzentzea, frogatzea, ebazpena eta exekuzioa.
C - Ebazpena, atzera egitea eta eskubideari uko egitea.
D - Elektronikoa eta paperezkoa.

54. Autonomia Estatutuaren eta euskarari buruzko araudiaren arabera, euskara:

A - Euskal Herriko hizkuntza propioa da.
B - Euskara, gaztelaniarekin batera, Euskal Herriko hizkuntza propioa da.
C - Euskara nahitaez jakin eta erabili behar da funtzio publikora iristeko.
D - Euskal Herriko hizkuntza ofiziala denez, batzuetan zuritua egon daiteke euskara erabili ezin duten herritarren eskubideei kalte egitea.

55. Alderdi politikoak sortzea:

A - Libre da, Konstituzioarekiko eta legearekiko errespetuaren barruan.
B - Botere judizialek baimendu behar dute.
C - Barne Ministerioak baimendu behar du.
D - Gobernuak baimendu behar du.

51. ¿Quién ejerce la potestad legislativa según la Constitución?

A - Las Cortes Generales.
B - El Tribunal Constitucional.
C - El Gobierno
D - La Administración.

52. Conforme al art. 15 de la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno, ¿se puede conceder una petición de acceso a información pública que concierna a datos personales que hagan referencia a la salud de las personas?

A - Sí, pero solo cuando se cuente con el consentimiento expreso de la persona afectada o la petición estuviera amparada por una norma con rango de ley.
B - No, procede la denegación en todos los casos.
C - Sí, previa ponderación suficientemente razonada del interés público en la divulgación de la información y del derecho de la persona afectada, sin necesidad de su consentimiento ni de habilitación legal o reglamentaria.
D - Sí, sin limitación alguna.

53. Las fases del procedimiento administrativo son:

A - Iniciación, ordenación, instrucción y finalización.
B - Solicitud, subsanación, prueba, resolución y ejecución.
C - Resolución, desistimiento y renuncia al derecho.
D - Electrónica y en papel.

54. El euskera, según dispone el Estatuto de Autonomía y la normativa que regula esta lengua:

A - Es la lengua propia del País Vasco.
B - Es, junto con el castellano, la lengua propia del País Vasco.
C - Es de conocimiento y uso obligatorio para el acceso a la función pública.
D - En cuanto lengua oficial del País Vasco, puede justificar en algunos supuestos el menoscabo de los derechos de aquellos ciudadanos y ciudadanas que no pueden hacer uso de ella.

55. La creación de los partidos políticos:

A - Es libre dentro del respeto a la Constitución y a la ley.
B - Se autoriza por los órganos judiciales.
C - Se autoriza por el Ministerio del Interior.
D - Se autoriza por el Gobierno.

ERANTZUN ZUZENEN ZERRENDA **LISTA DE RESPUESTAS CORRECTAS**

Erref. / Ref. OP2018/04

Azterketaren eguna: 2019/06/14 **Día del examen: 14/06/2019**

MEDIKUA
1.A) ARIKETA

MÉDICO/A
EJERCICIO 1.A)

A Galdesorta / Cuestionario A

1 **A**	2 **C**	3 **C**	4 **C**	5 **C**	6 **D**	7 **B**	8 **B**	9 **B**	10 **A**
11 **A**	12 **B**	13 **A**	14 **A**	15 **D**	16 **A**	17 **B**	18 **B**	19 **B**	20 **B**
21 **A**	22 **A**	23 **A**	24 **B**	25 **C**	26 **A**	27 **D**	28 **C**	29 **A**	30 **D**
31 **A**	32 **B**	33 **B**	34 **B**	35 **D**	36 **B**	37 **C**	38 **A**	39 **C**	40 **D**
41 **D**	42 **D**	43 **A**	44 **B**	45 **B**	46 **A**	47 **A**	48 **A**	49 **C**	50 **C**
51 **A ***	52 **A ***	53 **A ***	54 **A ***	55 **A ***					

B Galdesorta / Cuestionario B

1 **B**	2 **D**	3 **C**	4 **B**	5 **A**	6 **A**	7 **D**	8 **A**	9 **B**	10 **D**
11 **C**	12 **D**	13 **A**	14 **D**	15 **B**	16 **B**	17 **B**	18 **B**	19 **C**	20 **C**
21 **B**	22 **C**	23 **A**	24 **A**	25 **D**	26 **B**	27 **B**	28 **C**	29 **D**	30 **A**
31 **B**	32 **C**	33 **A**	34 **C**	35 **A**	36 **C**	37 **A**	38 **C**	39 **A**	40 **A**
41 **A**	42 **A**	43 **A**	44 **A**	45 **B**	46 **B**	47 **A**	48 **D**	49 **B**	50 **B**
51 **A ***	52 **A ***	53 **A ***	54 **A ***	55 **A ***					

C Galdesorta / Cuestionario C

1 **A**	2 **A**	3 **B**	4 **A**	5 **B**	6 **A**	7 **C**	8 **B**	9 **A**	10 **C**
11 **D**	12 **A**	13 **C**	14 **A**	15 **A**	16 **A**	17 **C**	18 **C**	19 **B**	20 **D**
21 **B**	22 **C**	23 **C**	24 **A**	25 **B**	26 **B**	27 **B**	28 **D**	29 **A**	30 **B**
31 **A**	32 **B**	33 **A**	34 **D**	35 **C**	36 **B**	37 **A**	38 **D**	39 **C**	40 **B**
41 **D**	42 **D**	43 **C**	44 **B**	45 **A**	46 **B**	47 **A**	48 **D**	49 **A**	50 **B**
51 **A ***	52 **A ***	53 **A ***	54 **A ***	55 **A ***					

D Galdesorta / Cuestionario D

1 **D**	2 **D**	3 **A**	4 **C**	5 **A**	6 **C**	7 **A**	8 **A**	9 **A**	10 **D**
11 **A**	12 **C**	13 **A**	14 **C**	15 **A**	16 **A**	17 **B**	18 **C**	19 **C**	20 **C**
21 **B**	22 **B**	23 **B**	24 **B**	25 **B**	26 **A**	27 **B**	28 **A**	29 **B**	30 **C**
31 **B**	32 **B**	33 **D**	34 **C**	35 **C**	36 **B**	37 **A**	38 **B**	39 **A**	40 **D**
41 **B**	42 **A**	43 **D**	44 **B**	45 **A**	46 **D**	47 **A**	48 **D**	49 **B**	50 **A**
51 **A ***	52 **A ***	53 **A ***	54 **A ***	55 **A ***					

** Erreserbako galderak / Preguntas de reserva*

OHARRA: erantzun zuzenen behin-behineko plantila, galdera sortari egindako alegazioen azterketa egin aurrekoa. Alegazio horiek erabaki ondoren, behin betiko plantila argitaratuko da.

NOTA: Plantilla provisional de respuestas correctas, sin perjuicio del análisis de las alegaciones presentadas al cuestionario de preguntas. Una vez resueltas las mismas, en breve se publicará la plantilla definitiva.

Donostia-San Sebastián, 2019/06/14

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

A EREDUA / MODELO A

MEDIKUA

Ezagutza teorikoen proba

1. ariketa - B) atala

MÉDICO/A

Prueba de conocimientos teóricos

Ejercicio 1 - Apartado B)

EZ PASA ORRIA, PASATZEKO ESATEN DEN ARTE!!!

¡¡¡NO VUELVA LA HOJA HASTA QUE SE LE INDIQUE!!!

Erref. - Ref.: OP2018/04

KONTUZ: Erantzunen Orriko 240. galderan, adierazi zein ariketa eredu egokitu zaizun: “A” aukera.

ATENCIÓN: Indique en la pregunta nº 240 de la Hoja de Respuestas el modelo de cuestionario que le ha correspondido: opción “A”.

ERANTZUNEN ORRIA / HOJA DE RESPUESTAS

	A	B	C	D
240	■			

Galdera bakoitzeko launa erantzun daude, aurretik letra hauek dituztenak: “A”, “B”, “C” eta “D”. Erantzun zuzena, ordea, bat bakarra da. Erantzunen Orrian ontzat eman duzun erantzunari dagokion letra markatu behar duzu, bertan erakusten den bezala.

En cada pregunta hay 4 posibles respuestas, precedidas de las letras "A”, “B”, “C” y “D”, de las que sólo una es correcta. Debe marcar en la Hoja de Respuestas la letra que corresponda a la solución, tal como se señala en la misma.

Aurrena, galdera orrian erantzun, eta gero Erantzunen Orrian kopiatu ezazu egin duzun aukera hori. Kontuz ibili kopiatzerakoan, eta gaizki markatu baduzu, eskatu laguntza zaintzaile bati.

Conteste primero en el cuadernillo y copie después la opción seleccionada en la Hoja de Respuestas. Tenga cuidado al copiar y si se equivoca, pida ayuda a un/a cuidador/a.

EZ AHAZTU: Erantzunen Orrian markatu aukeratu duzun erantzuna. Erantzun bat bakarra markatu.

RECUERDE: marque la solución en la Hoja de Respuestas y marque sólo una respuesta.

Azterketaren bukaeran erreserbako 15 galdera daude eta aurreko galderaren bat baliogabetuz gero bakarrik ebaluatuko dira.

El examen tiene al final del ejercicio 15 preguntas de reserva que sólo se evaluarán en el supuesto de anularse alguna pregunta.

Azterketako galderak: 1etik 210era
Erreserbako galderak: 211etik 225era

Preguntas de examen: de la 1 a la 210
Preguntas de reserva: de la 211 a la 225

KONTUZ: Ezagutza teorikoren probaren B) atalean erantzun okerrek penalizazioa dute (1/3)

ATENCIÓN: En la prueba de conocimientos teóricos apartado B) las respuestas erróneas penalizan (1/3)

OSO GARRANTZITSUA

LAUKITXOAK ONDO MARKATU



Irun, 2019-09-26

MUY IMPORTANTE

MARQUE CORRECTAMENTE LAS CASILLAS



Irún, 26-09-2019

1. Zein adinetan desagertzen da Moro-ren sinergia?

A - 1-2 hilabete.
B - 4-5 hilabete.
C - 7-8 hilabete.
D - 15 hilabete.

2. Geriatriako Balorazio Funtzionalari dagokionez, zein da aukera OKERRA?

A - LAWTON indizeak aintzat hartzen du generoa eta desberdin interpretatzen da bi sexuetan.
B - KATZ indizeak iragartze balio handia du biztanle geriatrikoen hilkortasun-tasa, batezbesteko egonaldiak eta instituzionalizazioa baloratzeko.
C - Eguneroko Oinarrizko Jarduerak ebaluatzeko erabilitako eskalarik erabilienak KATZ eta LAWTON dira.
D - BARTHEL indizea da Eguneroko Oinarrizko Jarduerak ebaluatzeko nazioartean ezagunena den eskala eta item kopuruari dagokionez informazio gehiena ematen diguna.

3. Infekzioak osasun arazo garrantzitsua dira zaharrengan, nola hilkortasun-tasari dagokionez hala gaixotze-tasari dagokionez. Zein da aukera zuzena?

A - Infekziorik ohikoenak arnasbideetakoak, gernukoak, larruazalekoak eta urdail-hesteetakoak dira.
B - Zaharren infekzioek, espresio kliniko txikiagoa izateaz gain, espresio analitiko txikiagoa dute.
C - Gernubideetako infekzioa da, zaharren artean, bakteriemia kausarik ohikoena.
D - Guztiak zuzenak dira.

4. Zein da hilkortasun-kausa ugariena Down-en sindromea duten haurrengan?

A - Hestegorriaren atresia.
B - Hirschsprung-en gaixotasuna.
C - Sortzetiko kardiopatia.
D - Pelbis displasikoa.

5. Besaburuaren kanpo biraketa eutsiaren maniobrak (Patte-ren maniobrak) zein muskulu miatzen du?

A - Arantza azpikoa.
B - Eskapula azpikoa.
C - Arantza gainekoa.
D - Bizepsaren zati luzea.

1. ¿A qué edad promedio desaparece la sinergia de Moro?

A - 1-2 meses.
B - 4-5 meses.
C - 7-8 meses.
D - 15 meses.

2. Respecto a la Valoración Funcional en Geriatría señale la opción que considere FALSA:

A - El índice de LAWTON tiene sesgo de género y se interpreta diferente en ambos sexos.
B - El índice de KATZ tiene un alto valor predictivo para valorar mortalidad, estancias medias e institucionalización en población geriátrica.
C - Las escalas más utilizadas para evaluar las ABVD (Actividades Básicas de la Vida Diaria) son el KATZ y LAWTON.
D - El índice de BARTHEL es la escala más internacionalmente conocida para evaluar ABVD (Actividades Básicas de la Vida Diaria) y la que más información nos aporta por el número de ítems.

3. Las infecciones en el anciano son un problema de salud importante, tanto por su mortalidad como morbilidad. Indique la opción correcta:

A - Las infecciones más frecuentes son las del tracto respiratorio, urinarias, piel y gastrointestinales.
B - Las infecciones en los ancianos no sólo tienen una menor expresión clínica sino también analítica.
C - La ITU (Infección del Tracto Urinario) es la causa más frecuente de bacteriemia en el anciano.
D - Todas son ciertas.

4. ¿Cuál es la principal causa de mortalidad en los niños con Síndrome de Down?

A - Atresia esofágica.
B - Enfermedad de Hirschsprung.
C - Cardiopatía congénita.
D - Pelvis displásica.

5. La maniobra exploratoria de rotación externa resistida del hombro (Maniobra de Patte), ¿qué músculo explora?

A - Infraespinoso.
B - Subescapular.
C - Supraespinoso.
D - Porción larga del bíceps.

6. Paziente zaharrek izaten duten gaixotasun kardiobaskularrari dagokionez, zein da OKERRA?

A - Murmurio sistolikoa duen paziente zahar batek angina, disnea, zorabio edo sinkope sintomak baldin baditu, funtsezkoa da aorta-estenosia izan dezakeela pentsatzea.

B - Presio benoso jugularra handitzea, arrapaladako erritmoa eta bihotz-taupadak desplazatzea kardiopatia iskemikoa diagnostikatzeko zantzu fisikoak dira.

C - Hipertentsio arteriala da tratatu daitekeen arrisku faktore nagusia zaharrek gaixotasun zerebrobaskularra eta arteriopatia koronarioa dutenean.

D - Aurikula fibrilazioa da bihotzeko arritmia iraunkorrik ohikoena eta haren prebalentzia handiagoa da adinean aurrera egin ahala.

7. Esklerosi anizkoitzean, ikusmenaren erasanen artean, zein EZ da agertzen?

A - Neuritis optikoa.

B - Diplopia.

C - Nistagmoa.

D - Glaukoma sekundarioa.

8. Zaharrei eritropoiesiak eragiten dizkien aldaketa fisiologiko hauetako zein da OKERRA?

A - Alterazio bat dago eritropoietina sortzen eta hari erantzuten.

B - Zelula aitzindari eritroideak ugaritzen dira.

C - Zahartzaroan zitokina proinflamatorioak ugaritzea (inflam.angim fenomenoa) eritropoiesiaren alterazioan eragileetariko bat da.

D - Anemia ez da hartu behar zahartzearen halabeharrezko ondoriotzat, adinekoen % 80ren kasuan beste arrazoi bat baitago horren azpian.

9. Zein gaitasun dago erasanda alboko esklerosi amiotrofikoan (AEA)?

A - Maskuriaren edo ondestearen esfinterren kontrola.

B - Begiaren muskuluak.

C - Irensteko arazoak (disfagia).

D - Adimenekoak eta burukoak.

10. Zein zeinu jotzen da miaketaren zeinu kardinaltzat, garuneko paralisiaren iradokitzaile?

A - Erreflexu primarioek irautea.

B - Higidura eredu normalak izatea.

133. Zer desgaitasun portzentaje dagokie fistula enterokutaneo eferenteak (ileostomia, kolostomia) dituztenei?

A - % 20.

B - % 24.

C - % 30.

D - % 50.

133. ¿Qué porcentaje de discapacidad les corresponde a las personas que presenten fístulas enterocutáneas eferentes (Ileostomía, Colostomía)?

A - 20 %.

B - 24 %.

C - 30 %.

D - 50 %.

134. Nola deitzen zaio gaueko itsutasunari?

A - Diskromatopsia.

B - Hemiapnosia.

C - Niktalopia.

D - Fotopsia.

134. ¿Cómo se denomina a la ceguera nocturna?

A - Discromatopsia.

B - Hemiapnosia.

C - Nictalopía.

D - Fotopsia.

135. Gaixotasun zerebrobaskularra ohikoa izaten da zaharrengan. Zein da zuzena?

A - Garun zahartzearekin lotutako aldaketek ez dakarte zaharrek iktusa jasateko arrisku handiagoa izatea.

B - Gaixotasun zerebrobaskularra duten zaharren ezgaitasuna eta hilkortasun-tasa nabarmen murrizteko, eraginkorragoa da tratamendua prebentzioa baino.

C - Loaldiko buxatze-apnearen sindromea ez da gaixotasun zerebrobaskularraren arrisku faktoretzat hartzen paziente zaharretan.

D - Arnasbideetako infekzioa da hilkortasun kausa nagusienetako bat iktus baten ondoko lehen asteetan. Mugiezintasunarekin, eztula egiteko gaitasun urriarekin eta disfagiarekin lotzen da.

135. La Enfermedad Cerebrovascular (ECV) es una entidad frecuente en ancianos. Al respecto señale la opción correcta:

A - Los cambios relacionados con el envejecimiento cerebral no se asocian a una mayor vulnerabilidad del anciano a sufrir ICTUS.

B - Para obtener una reducción importante de la incapacidad y la mortalidad en los ancianos con ECV, resulta más eficaz el tratamiento que la prevención.

C - Síndrome de Apnea Obstructiva del Sueño (SAOS), no se considera un factor de riesgo de ECV en el paciente mayor.

D - La infección respiratoria es una de las causas más frecuentes de mortalidad en las primeras semanas posteriores a un Ictus. Se asocia con inmovilidad, escasa capacidad tusígena y la disfagia.

136. Pertsona batek hepatopatia kronikoa du, Child-Plug balorazio eskalan B klasekoa dena. Zenbat puntu emango zaizkio horren balorazio parametroetan?

A - 5-6.
B - 7-9.
C - 10-12.
D - 12-15.

137. Gaixotasun onkologikoa duen pertsona beten kasuan, tratamendua aringarria edo sintomatikoa denean, noiz egingo da balorazioa?

A - Sei hilabete igarotzean baloratuko da desgaitasun gradua.
B - Gaixoak aurrez zeukan desgaitasun balorazioa mantenduko da.
C - Eskaeraren unean egin ahal izango da balorazioa, itxaron beharrik gabe.
D - Hobekuntzara jo dezakeenez, bi urtean behin berrikusiko da.

138. Gaixotasun terminala duen paziente batek dituen sintomak aintzat hartuz, zein da erantzun OKERRA?

A - Oso garrantzitsua da pazienteek adierazitako sintoma guztiak erregistratzea eta monitorizatzea, tratamenduaren aurrean nola erantzuten duten ikusteko aldizkako azterketak eginez.
B - Onkologiako paziente geriatrikoetan, sindrome geriatriko gehiago izaten dira (mugiezintasuna, loaren nahasmendua, deliriuma, idorreria, presioaren ondoriozko ultzerak), baina txikiagoak izaten dira minaren adierazpena, depresioa eta gorakoak.
C - Sintoma egonkorrak izaten dira eta ez dira egunean zehar aldatzen; hortaz, aski da hasierako ebaluazio bat egitea.
D - Geriatrian, gaixotasun aurreratuen sintomak modu atipikoan agertzen dira, eta ez dira antzematen errazak izaten; hala, erraz nahasten dira adin handiari lotutako egoerak eta autonomia galerak terminalitatearekin.

136. Un paciente que padece hepatopatía crónica, con una clase B de la escala de valoración de Child-Plugh, ¿cuántos puntos deberá sumar en los parámetros de valoración de la misma?

A - 5-6.
B - 7-9.
C - 10-12.
D - 12-15.

137. En un paciente con enfermedad oncológica, cuando el tratamiento sea paliativo o sintomático, ¿cuándo se realizará valoración?

A - El grado de discapacidad será evaluado transcurridos seis meses.
B - Se mantendrá la valoración de la discapacidad que previamente tuviera el enfermo.
C - Podrá realizarse la valoración en el momento de la solicitud sin necesidad de esperar.
D - Por su posible evolución hacia la mejoría, se revisará cada dos años.

138. Atendiendo a los síntomas que presenta un paciente con Enfermedad Terminal, ¿cuál de las siguientes respuestas considera usted que es falsa?

A - Es muy importante registrar todos los síntomas que refieren los pacientes y monitorizarlos con revisión periódica de la respuesta al tratamiento.
B - En el paciente geriátrico oncológico hay más presencia de síndromes geriátricos (inmovilidad, trastorno del sueño, delirium, estreñimiento, úlceras por presión) y menor expresión de dolor, depresión y vómitos.
C - Suelen ser síntomas que se mantienen estables y no cambian a lo largo del día, por lo que basta con hacer una sola evaluación inicial.
D - En Geriatría los síntomas en la enfermedad avanzada suelen tener una presentación atípica y no son fácilmente reconocibles, siendo fácil confundir situaciones de edad avanzada y pérdida de autonomía con terminalidad.

139. Desgaitasunaren baloraziorako arau orokorrei dagokienez, zer da GEZURRA?

A - Desgaitasuna sorrarazi duen prozesu patologikoa, kongenitoa izan edo hartua izan, aldez aurretik erakunde eskudunek diagnostikatu behar dute.

B - Gaixotasunaren diagnostikoa berez da balorazio irizpide bat.

C - Baloraziorako irizpideen funtsa ez da desgaitasunaren irismena bera, baizik eta eguneroko bizitzako jarduerak burutzeko garaian desgaitasunak duen eragina.

D - Desgaitasun iraunkortzat jo behar dira errekuperagarriak ez diren alterazio organikoak edo funtzionalak.

140. Osakidetzaren erronkak eta proiektu estrategikoak, 2017-2020. Erronketako bat da:

A - Prebentzio soziosanitarioa eta herritarren parte-hartzea.

B - Osasuna sustatzea eta gaixotasunak prebenitzea.

C - Osasun sistemaren jasangarritasuna eta modernizazioa.

D - Guztiak dira Osakidetzaren erronka estrategikoak 2017-2020 aldirako.

141. Gaixotasun baskular periferikoak larruazaleko alterazioak sortzen baditu, nola baloratuko da?

A - Gaixotasun baskularrak sortutako desgaitasuna ez da konbinatuko zeinu dermatologikoari egotzi dakiokeenarekin.

B - Gaixotasun baskularrak sortutako desgaitasuna konbinatuko da zeinu dermatologikoari egotzi dakiokeenarekin.

C - Zeinu dermatologikoari egotzi dakiokeena bakarrik baloratuko da.

D - Ez da baloratuko tratamenduan bi urte igaro arte.

139. Respecto a las normas generales de valoración del grado de discapacidad es FALSO que:

A - El proceso patológico que ha dado origen a la deficiencia, bien sea congénito o adquirido, ha de haber sido previamente diagnosticado por los organismos competentes.

B - El diagnóstico de la enfermedad es un criterio de valoración en sí mismo.

C - Las pautas de valoración no se fundamentan en el alcance de la deficiencia sino en su efecto sobre la capacidad para llevar a cabo las actividades de la vida diaria.

D - Deben entenderse como deficiencias permanentes aquellas alteraciones orgánicas o funcionales no recuperables.

140. Uno de los retos estratégicos de Osakidetza 2017-2020 es:

A - Prevención Sociosanitaria y participación ciudadana.

B - Promoción de la salud y prevención de la enfermedad.

C - Sostenibilidad y modernización del sistema sanitario.

D - Todos ellos son retos estratégicos de Osakidetza para el periodo 2017-2020.

141. En el supuesto de que la enfermedad vascular periférica produzca alteraciones cutáneas, ¿cómo se valorará?

A - El porcentaje de discapacidad originado por la deficiencia vascular no se combinará con el atribuíble a la manifestación dermatológica.

B - El porcentaje de discapacidad originado por la deficiencia vascular se combinará con el atribuíble a la manifestación dermatológica.

C - Solo se valorará el atribuíble a la manifestación dermatológica.

D - No se valorará hasta que transcurran dos años de tratamiento.

142. Paziente zaharretan gaixotasun kardiobaskularrak zaintzeko erabiltzen diren terapia farmakologikoei dagokienez, zein da zuzena?

A - AEBIek (angiotentsinaren entzima bihurtzilearen inhibitzailea) sintomak eta hilkortasuna hobetzen dituzte disfuntzio sistolikodun bihotzeko gutxiegitasuna diagnostikatua duten pazienteetan.

B - Diuretiko tiazidikoak baliatzen dira orain ere hipertentsio sistoliko konbinatua edo isolatua duten pazienteetan, hipertentsioaren aurkako tratamendu gisa. Tratamendua monitorizatu egin behar da, alterazio elektrolitikoak –hala nola hipopotasemia eta hipernatremia– sorrarazten dituelarik.

C - Hauek dira AEBIen albo ondorio nagusiak: Hipotentsioa, hipopotasemia, eztula eta, kasu bakanetan, edema angioneurotikoa.

D - Digoxina izan da, tradizionalki, aurikula fibrilazioa duten paziente zaharretan bihotz-maiztasuna kontrolatzeko lehen aukera terapeutikoa; haren onura nagusia da ariketa egin bitartean bihotz-maiztasuna kontrolatzen duela.

142. Respecto a las terapias farmacológicas empleadas para el manejo de las distintas enfermedades cardiovasculares en el paciente anciano, señale la opción correcta:

A - Los IECA mejoran los síntomas y la mortalidad en los pacientes con diagnóstico de Insuficiencia cardiaca con disfunción sistólica.

B - Los diuréticos tiazídicos siguen siendo el tratamiento antihipertensivo de elección en los pacientes ancianos con hipertensión sistólica combinada o aislada. Debe monitorizarse su tratamiento al producir alteraciones electrolíticas como: hipopotasemia e hipernatremia.

C - Los principales efectos secundarios de los IECA son: Hipotensión, hipopotasemia, tos y en raras ocasiones edema angioneurótico.

D - La Digoxina , ha sido tradicionalmente, la primera opción terapéutica para control de la FC en pacientes ancianos con FA y una de sus ventajas es que controla la FC durante el ejercicio.

143. Beheko gorputz adarraren urritasun hauetatik, zeini dagokio desgaitasun gradurik handiena?

A - Bi bastoi edo bi makulu eta beheko gorputz adarraren zuzentzaile motz bat erabili behar ditu eskuarki.

B - Bastoi bat edo makulu bat eta beheko gorputz adarraren zuzentzaile motz bat erabili behar ditu eskuarki.

C - Bi bastoi edo bi makulu eta beheko gorputz adarraren bi zuzentzaile motz erabili behar ditu eskuarki.

D - Bastoi, makulu eta beheko gorputz adarraren zuzentzaile luze bat erabili behar du eskuarki.

143. ¿A cuál de estas deficiencias de la extremidad inferior por alteración de la marcha le corresponde mayor grado de discapacidad?

A - Requiere la utilización habitual de dos bastones o dos muletas y un corrector corto del miembro inferior.

B - Requiere la utilización habitual de un bastón o muleta y un corrector corto del miembro inferior.

C - Requiere la utilización habitual de dos bastones o dos muletas y dos correctores del miembro inferior.

D - Requiere la utilización habitual de un bastón, muleta o corrector largo del miembro inferior.

144. Garuna zahartzeari dagokionez, zein da OKERRA?

A - Ezin dugu garuna zahartzeaz hitz egin ikuspuntu kronologiko hutsetik (garun batzuk azkarrago zahartzen dira beste batzuk baino).

B - Batzuetan oso zaila izaten da garuneko aldaketa fisiologikoen (denboraren mendekoen) eta patologikoen (gaixotasunen mendekoen) arteko muga ezartzea.

C - Garun urtetsuek, gazteagoen aldean, pisua eta bolumena galtzen dute.

D - Sistema kolinergikoari erasaten zaio, azetilkolina gehiago askatuz, eta area kortikalean eta hipokanpoan azetilkolintransferasaren jarduera areagotuz.

144. Respecto al envejecimiento cerebral, señale la FALSA:

A - No podemos hablar de envejecimiento cerebral desde un punto de vista exclusivamente cronológico (algunos cerebros envejecen a un ritmo mayor que otros).

B - En ocasiones es muy difícil establecer la frontera entre los cambios fisiológicos (tiempo dependientes) y patológicos (enfermedad dependientes) del cerebro.

C - Son características la pérdida de peso y volumen de los cerebros añosos frente a los más jóvenes.

D - Existe una afectación del sistema colinérgico, con un aumento de la liberación de acetilcolina y aumento de la actividad de la acetil-colintransferasa en áreas corticales y del hipocampo.

145. Etzanerako ultzeren fisiopatologiari dagokionez, zein da OKERRA?

A - Sukarrak hezetasuna eta frikzioa sorrarazten ditu eta, ondorioz, presio-ultzerak sortzeko arrisku faktore bat da zaharrentzat.

B - Hauek dira presio-ultzerak sortzen laguntzen duten faktore nagusiak: Presioa, frikzioa eta nerbio-estutze baskularra.

C - Ultzera bat energia eta proteina gastu handia dakarren egoera bat da, eta hidratazio egokiaz gain, proteina eta mikronutriente gehiago hartzea eskatzen du, hala nola: Zn; Cu; Fe; A eta C bitaminak.

D - Presio-ultzerak sortzen garrantzi handiagoa du organismoaren area jakin baten gainean egindako presioaren intentsitateak, presio handi horren iraupenak baino.

145. Respecto a la Fisiopatología de las úlceras por decúbito, señale la opción que considere falsa:

A - La fiebre facilita la humedad y la fricción y por lo tanto es un factor de riesgo para la aparición de úlceras por presión en el anciano.

B - Los principales factores que contribuyen al desarrollo de úlceras por presión son : Presión, Fricción y Pinzamiento vascular.

C - La úlcera es una situación de alto gasto energético y proteico, que requiere además de una buena hidratación, aportes más elevados de proteínas y micronutrientes como: Zn; Cu; Fe; Vitaminas A Y C.

D - En la formación de las úlceras por presión tiene más importancia la intensidad de la presión ejercida sobre un área concreta del organismo que el tiempo de exposición a esa presión elevada.

146. Osasun egoeran eragina duten eta osasun zerbitzuekiko kontaktuarekin lotuta dauden faktoreak:

A - GNS-10 (Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapena) dokumentuaren 21. kapituluan sailkatzen dira.

B - Kode berezien multzo batean sailkatzen dira: Z kodeak dira.

C - Z kode batek beti izan behar du berarekin prozedura kode bat.

D - Osasun egoerari eta osasun zerbitzuekiko kontaktuari buruzko baieztapen horiek denak egiazkoak dira.

146. Los factores que influyen en el estado de salud y contacto con los servicios sanitarios:

A - Se clasifican en el capítulo 21 de la CIE-10.

B - Se clasifican en un grupo especial de códigos, denominados códigos Z.

C - Un código Z se debe acompañar siempre del correspondiente código de procedimiento.

D - Todas las afirmaciones respecto a los factores que influyen en el estado de salud y contacto son ciertas.

147. Zer da dermatoma bat?

A - Konkorroma dermiko bat.

B - Jaiotzez sortutako orban ardo kolorekoa.

C - Nerbio-sustrai espinal bakar batetik eratorritako nerbio sentsitiboak dituen azaleko area bat.

D - Hematoma bat, azalaren arlo batean.

147. Un Dermatoma es:

A - Bultoma dérmico.

B - Mancha de coloración vinácea de nacimiento.

C - Área de piel cuyos nervios sensitivos provienen de una única raíz nerviosa espinal.

D - Un hematoma en una zona de la piel.

148. Adinekoen gernu inkontinentziari dagokionez, zein da zuzena?

A - Gernu inkontinentzia zahartzaroko fenomeno normal bat da.

B - Handia da osasun arazo honi dagokion mediku kontsultaren indizea.

C - Gernu inkontinentziak zenbait alderditan eragiten dio pazienteari (eragin fisikoa, psikikoa, soziala eta ekonomikoa).

D - Maskuri hiperaktiboa da adinekoengan agertzen den gernu inkontinentzia motarik ezohikoena.

148. Respecto a la incontinencia urinaria en el anciano, señale la cierta:

A - La incontinencia urinaria es un fenómeno normal del envejecimiento.

B - Existe un alto índice de consulta al médico por este problema médico.

C - La incontinencia urinaria produce repercusión en diferentes áreas del paciente (física, psíquica, social y económica).

D - La Vejiga Hiperactiva es el tipo menos frecuente de incontinencia urinaria establecida en el anciano.

149. Loaren nahasmenduek prebalentzia handia dute paziente geriatrikoetan. Osasun arazo horri dagokionez, zein da OKERRA?

A - Loezina da zaharrengan ohikoena den loaren nahasmendua.

B - Loaren nahasmenduak ohikoagoak dira emakumezkoengan, baina salbuespen dira loaldiko apnearen sindromea eta REM loaren jokabidearen nahasmenduak, horietan gizonezkoak gailentzen baitira.

C - Prebalentzia handia bada ere, ez da mediku kontsulten eragile nagusi bat.

D - Loaren nahasmenduak, itxuraz kaltegarriak ez izan arren, beti diagnostikatu behar dira, aldaketak eragiten baitituzte pazientearen bizi kalitatean eta haren senitarteko eta zaintzaileenean.

150. Zein esaldi EZ da zuzen diplegia espastikoaz?

A - Aldaerarik larriena da.

B - Aldaerarik ugariena da.

C - Helduaurrekotasunarekin lotzen da batik bat.

D - Kausa ugariena da leukomalazia peribentrikularra.

151. Zein data jotzen da desgaitasunaren onespenaren eragin datatzat?

A - Eskaeraren data.

B - Balorazio irizpenaren data.

C - Ebazpenaren data.

D - Ebazpenaren jakinarazpen data.

152. Ondoko sintometatik, zein EZ da min neuropatikoaren ezaugarri?

A - Parestesiak.

B - Hiperestesiak.

C - Disestesiak.

D - Misestesia.

153. Audizio monoauralean, zer atalasetik kontsideratzen da entzumen galera dagoela?

A - 10 db

B - 15 db

C - 20 db

D - 25 db

154. Desgaitasuna baloratzeko taldeak hainbat diziplinatako profesionalez osatuta daude. Lantalde horietan hiru profil egongo dira gutxienez. Hauetako zein EZ da ezinbestekoa?

A - Medikua.

B - Psikologoa.

C - Monitore okupazionala.

D - Gizarte langilea.

149. Los trastornos del sueño presentan una alta prevalencia en la edad geriátrica. Acerca de este problema de salud, indique la opción falsa:

A - El insomnio es el trastorno del sueño más frecuente en el anciano.

B - Los trastornos del sueño son más frecuentes en el sexo femenino excepto el síndrome de apnea del sueño y trastornos de conducta en sueño REM que predomina en el sexo masculino.

C - A pesar de su alta prevalencia, no es una importante causa de consulta médica.

D - Los trastornos del sueño a pesar de su aparente benignidad deben diagnosticarse siempre, ya que provocan alteraciones tanto en la calidad de vida del paciente como en la de sus familiares y cuidadores.

150. ¿Qué afirmación NO es cierta en relación a la Diplejía Espástica?

A - Es la forma más grave.

B - Es la forma más frecuente.

C - Se relaciona especialmente con la prematuridad.

D - La causa más frecuente es la leucomalacia periventricular.

151. La fecha que se considera fecha de efecto del reconocimiento del grado de discapacidad es:

A - La fecha de la solicitud.

B - La fecha del dictamen de valoración.

C - La fecha de la resolución.

D - La fecha de notificación de la resolución.

152. ¿Cuál de estos síntomas NO es característico del dolor neuropático?

A - Parestesias.

B - Hiperestesias.

C - Disestesias.

D - Misestesia.

153. ¿A partir de qué umbral de audición monoaural se considerará pérdida auditiva?

A - 10 db.

B - 15 db.

C - 20 db.

D - 25 db.

154. Los equipos de valoración de la discapacidad están compuestos por profesionales de diferentes disciplinas. Hay tres perfiles que como mínimo deben formar parte de los equipos. ¿Cuál de estos NO es imprescindible?

A - Medicina.

B - Psicología.

C - Monitor ocupacional.

D - Trabajo social.

155. Mekanismo fisiopatologikoaren arabera, nola sailkatzen da mina?

A - Arina, moderatua, gogorra.
B - Neuropatikoa, noziozeptiboa, psikogenoa.
C - Kronikoa, irruptiboa.
D - Somatikoa, biszerala.

156. Zenbat babes maila eskaintzen ditu Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemak mendekotasun egoeran dauden pertsonentzat?

A - 1.
B - 2.
C - 3.
D - 4.

157. Hauetatik zein dira erezkioaren disfuntzioaren kausarik ezohikoenak zaharrengan?

A - Baskularrak.
B - Psikogenoak.
C - Neurologikoak.
D - Farmakologikoak.

158. Zer prestazio mota sartzen dira, gutxienez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sisteman?

A - Teknikoak, ekonomikoak eta osagarriak.
B - Ekonomikoak, teknologikoak eta osagarriak.
C - Teknikoak, ekonomikoak eta teknologikoak.
D - Ekonomikoak, teknologikoak eta bizitokikoak.

159. Ikusmena baloratzerakoan, nola deitzen zaio 30º inguruko isopterak mugatzen duen azalerari?

A - Ikusmen eremu periferikoa.
B - Ikusmen eremu zentrala.
C - Eskotoma.
D - Ikusmen eremu tenporala.

160. Zer da OKERRA loaldiko apnearen sindromeari buruz?

A - Loaldian aho-sudurretako aire fluxuaren etenaldi intermitentea da eta 5 segundotik gorako iraupena du.
B - Behin betiko diagnostikoa polisomnografiaren bitartez egiten da.
C - Diagnostikatu ohi da, baita ere, gaueko oximetria eginez, zeinak frogatzen baitu O2 arterialaren desaturazioa gertatzen dela apneetan.
D - Oinarrizko arnas gutxiegitasun mailaren arabera egingo da balorazioa.

155. Según el tipo de mecanismo fisiopatológico, ¿cómo se clasifica el dolor?

A - Leve, moderado, severo.
B - Neuropático, nocioceptivo, psicógeno.
C - Crónico, irruptivo.
D - Somático, visceral.

156. Los niveles de protección de la situación de dependencia del Sistema para la Autonomía y Atención a la dependencia son:

A - 1.
B - 2.
C - 3.
D - 4.

157. ¿Cuál de las siguientes causas de disfunción eréctil considera que son las menos frecuentes en los ancianos?

A - Vasculares.
B - Psicógenas.
C - Neurológicas.
D - Farmacológicas.

158. El Sistema Vasco de Servicios Sociales comprenderá, como mínimo, los siguientes tipos de prestaciones:

A - Técnicas, económicas y complementarias.
B - Económicas tecnológicas y complementarias.
C - Técnicas, económicas y tecnológicas.
D - Económicas, tecnológicas y de alojamiento.

159. En la valoración de la visión, ¿cómo se denomina a la superficie limitada por la isóptera de alrededor de 30º?

A - Campo visual periférico.
B - Campo visual central.
C - Escotoma.
D - Campo visual temporal.

160. ¿Qué afirmación es ERRÓNEA sobre el síndrome de apnea del sueño?

A - Se define como una detención intermitente del flujo aéreo por boca y nariz durante el sueño que supera los 5 segundos de duración.
B - El diagnóstico definitivo se realiza mediante polisomnografía.
C - También se diagnostica mediante la realización de oximetría nocturna que demuestre la desaturación de O2 arterial durante las apneas.
D - La valoración se efectuará de acuerdo con el grado de insuficiencia respiratoria basal.

161. Zein ezberdintasun fisikok EZ DU ERAGINIK Down-en sindromea dutenen hizketan eta mintzamenean?

A - Mihi handia izatea, ahoaren aldean.
B - Sudurreko arnasketa.
C - Apraxia edo ahoaren mugimenduak egiteko zailtasuna.
D - Mihiaren artikulazioaren anomaliak.

162. Zer klasekoa da orekaren alterazioak dituen gaixo baten desgaitasuna, krisi bertiginosoak baditu hilean behin baino maizago?

A - 1 klasekoa: % 0.
B - 2. klasekoa: % 1etik 24ra.
C - 3. klasekoa: % 25etik 49ra.
D - 4. klasekoa: % 50etik 70era.

163. Nola egiten da Lassegue-ren maniobra?

A - Zangoa luzaturik igotzen da, pazientea ahoz gora etzanda dagoela.
B - Oinazea agertzen da oinbularra flexionatzerakoan.
C - Orpazurdan kolpe bat emanda, oin-zola flexionatu egiten da.
D - Bizkarrezurraren plano koronalaren biraketa egiten da.

164. IMMUNOESKASIAK: Tratamendua behar du. Immunoeskasiarekin lotuta, urtean 3 gertakari edo gehiago jasaten ditu, mediku arreta eskatzen dutenak gutxienez 24na orduz, edota urtean 30 egun baino gehiagotan. Zer desgaitasun klase eta gradu izango ditu?

A - 2. klasekoa: % 1etik 24ra.
B - 3. klasekoa: % 25etik 49ra.
C - 4. klasekoa: % 50etik 70era
D - 5. klasekoa: % 75.

165. Zein da baieztapen zuzena loaren nahasmenduei dagokienez?

A - Kontziliazioko loezina da lokartu aurreko sortasuna 10 minututik gora luzatzea.
B - Mantenimenduko loezina da gauean bi aldiz baino gehiago esnatzea edo gauez ordu erditik gorako esna aldia izatea.
C - Loezina kronikotzat hartzen da hiru astetik gorako iraupena badu, eta aste horietan zaharrak egunean 5-6 ordu baino gutxiago egiten badu lo, eta horrek nabarmen eragiten badie eguneko jarduerei.
D - Atsedenik gabeko zangoen sindromea eta loaldiko apnea parasomniak dira.

161. Qué diferencia física NO AFECTA al habla y lenguaje en el Síndrome de Down:

A - Lengua grande en relación con la boca.
B - Respiración nasal.
C - Apraxia o dificultad en los movimientos orales.
D - Anomalías en la articulación de la lengua.

162. ¿A qué clase de discapacidad por alteraciones del equilibrio pertenece un paciente con crisis vertiginosas con una frecuencia de más de una al mes?

A - Clase 1: 0 %.
B - Clase 2: 1 a 24 %.
C - Clase 3: 25 a 49 %.
D - Clase 4: 50 a 70 %.

163. ¿Cómo se realiza la maniobra de Lassegue?

A - Elevación de la pierna extendida con el paciente en decúbito supino.
B - Aparición de dolor con la dorsi-flexión del pié.
C - En un golpe en el tendón aquíleo produciendo una flexión plantar del pie.
D - Rotación de la columna en el plano frontal.

164. INMUNODEFICIENCIAS: Precisa tto. Presenta 3 o más episodios anuales de enfermedades relacionadas con su inmunodeficiencia que precisan atención médica durante al menos 24 horas cada uno o durante más de 30 días al año. Indique clase y grado de discapacidad.

A - Clase 2: 1 a 24 %.
B - Clase 3: 25 a 49 %.
C - Clase 4: del 50 al 70 %.
D - Clase 5: 75 %.

165. Respecto a los trastornos del sueño, señale la aseveración que considere correcta:

A - El insomnio de conciliación se caracteriza por una latencia del sueño prolongada > de 10 min.
B - El insomnio de mantenimiento se caracteriza por más de dos despertares nocturnos o más de media hora de vigilia nocturna.
C - El insomnio crónico se define cuando la duración del mismo es superior a las tres semanas durante las cuales el anciano duerme menos de 5-6 horas y las repercusiones sobre la actividad diurna son muy importantes.
D - El síndrome de Piernas inquietas y la Apnea del sueño son parasomnias.

166. Antolamendu soziosanitarioaren konplexutasunaren arrazoietako bat EZ da:

A - Aldeak osasun arretaren eta gizarte arretaren eskubidearen izaeran.

B - Konplexutasuna antolamenduan eta egituran.

C - Praktika profesionalari lotutako faktoreak.

D - Guztiak dira antolamendu soziosanitarioaren konplexutasunaren arrazoi.

167. Zahartze genitourinarioaren aldaketa anatomiko/funtzional sekundario hauetako zein da OKERRA?

A - Barrabilen batez besteko bolumena txikitu egiten da.

B - Baginaren luzera txikitu egiten da.

C - Atzeranzko eiakulazioaren maiztasuna txikitu egiten da.

D - Emakumezkoetan, beherakada azkar bat dago orgasmoaren ondoren, eta kontrakzio orgasmikoen kopurua gutxitu egiten da.

168. Birika funtzioaren zein proba egiten da Duchenne-ren gaixotasuna baloratzeko?

A - FVC.

B - FEV1.

C - PEF.

D - Aurreko guztiak.

169. Beheko gorputz adarraren zer desgaitasun portzentaje dagokio izter erdialdeko anputazio bati?

A - % 70.

B - % 80.

C - % 90.

D - % 100.

170. Ondoko esaldietatik zein da zuzena Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapenari (FNS) buruz?

A - FNSak bi zati ditu: alde batetik, funtzionamendua eta desgaitasunak; eta, bestetik, ingurumen faktoreak.

B - FNSan, faktore pertsonalek hartzen dituzten aldagaiak arraza, adina edo generoa dira, besteak beste.

C - Ingurumen faktoreak kalifikatzen dira pertsonaren funtzionamenduan oztopoa diren heinean.

D - Erantzun guztiak ondo daude.

166. Entre las causas de complejidad de la articulación sociosanitaria NO se encuentra:

A - Las diferencias de la naturaleza del derecho de la atención sanitaria y la social.

B - La complejidad organizativa y estructural.

C - Factores asociados a la práctica profesional.

D - Todas ellas son causas de complejidad de la articulación sociosanitaria.

167. ¿Cuál de los siguientes cambios anatómicos/ funcionales secundarios al envejecimiento genitourinario es FALSO?

A - Disminuye el volumen medio del testículo.

B - Disminuye la longitud de la vagina.

C - Disminuye la frecuencia de eyaculación retrógrada.

D - En la mujer existe un rápido descenso tras el orgasmo y disminuye el número de contracciones orgásmicas.

168. ¿Qué pruebas de la función pulmonar se realizan en la valoración de la enfermedad de Duchenne?

A - FVC.

B - FEV1.

C - PEF.

D - Todas las anteriores.

169. ¿Qué porcentaje de discapacidad del miembro inferior le corresponde a una amputación a nivel de la región media del muslo?

A - 70 %.

B - 80 %.

C - 90 %.

D - 100 %.

170. Señale la afirmación CORRECTA en relación con la Clasificación Internacional del Funcionamiento (CIF):

A - La CIF se divide en 2 partes: Funcionamiento y discapacidad por un lado y Factores ambientales por otro.

B - Los Factores personales, de la CIF hacen referencia a variables como la raza, la edad o el género.

C - Los factores ambientales se califican en función de si constituyen una barrera en el funcionamiento del individuo.

D - Todas las afirmaciones son correctas.

171. Gaixotasun kroniko progresiboak dituzten pazienteetan, bizitzako azken urtean, hiru ibilbide kliniko desberdin deskribatu dira: Zein da erantzun zuzena?

A - Gaixotasun neoplasikoei loturiko ibilbidean, gainbehera azkarra eta fase terminal argia izaten dira.

B - Organoetako gaixotasunei loturiko ibilbidean (bihotzeko edo biriketako gutxiegitasuna), gainbehera pixkanakakoa izaten da, tarteka okertze nabarmenak eta erabateko susperraldiak izaten dituztelarik.

C - Paziente dementziadunek azkar eta progresiboki egiten dute okerrera.

D - Ibilbide kliniko desberdinak ezagutzeari esker, egiten ari diren esku-hartzeak eboluzio egoerarekiko proportzionalak ote diren plantea dezakete klinikoek.

171. En el último año de vida en pacientes con enfermedades crónicas progresivas, se han descrito tres trayectorias clínicas distintas. Señale la opción correcta:

A - La trayectoria asociada a enfermedad neoplásica se caracteriza por un declinar rápido y una fase terminal clara.

B - La trayectoria asociada a enfermedad de órgano (Insuficiencia cardiaca o respiratoria) se caracteriza por un declinar gradual, con episodios de deterioro agudo y recuperación total.

C - Los pacientes con demencia presentan un deterioro rápido y progresivo.

D - El conocimiento de las diferentes trayectorias clínicas por parte de los clínicos les permite plantearse si las intervenciones que se están realizando son proporcionales a la situación evolutiva.

172. Neke kronikoa da esklerosi anizkoitzaren sintoma nagusietako bat. Zein da horren definizio zuzena?

A - Nekearen sentipen berri eta nabarmena handitzea aurreko 6 asteetan.

B - Nekea izatea noiznahi, hilabete baino gehiagoko egunen % 20an.

C - Nekea izatea noiznahi, 6 aste baino gehiagoko egunen % 50ean.

D - Erantzun guztiak oker daude.

172. La fatiga crónica es uno de los síntomas cardinales de la Esclerosis Múltiple (EM), señala la definición CORRECTA:

A - Aumento nuevo y significativo en la percepción de la fatiga en las 6 semanas previas

B - Fatiga presente en cualquier momento en el 20 % de los días durante más de 1 mes.

C - Fatiga presente en cualquier momento en el 50 % de los días durante más de 6 semanas.

D - Todas son falsas

173. Aukera hauetako zein da OKERRA?

A - Bihotzeko gutxiegitasuna duten pazienteetan disfuntzio sistolikoa dutenek pronostiko okerragoa izaten dute funtzio sistoliko normala dutenek baino.

B - Peptido natriuretikoak eraginkorrak dira ezker-bentrikuluan disfuntzio sistolikoa duten pazienteak detektatzeko.

C - Bihotzeko gutxiegitasuna izan dezakeela uste den paziente zahar bat miatzeko miaketa osagarririk onenak elektrokardiograma eta toraxeko erradiografia dira.

D - Adineko pazienteen bihotzeko gutxiagotasun kronikoa areago larriagotzen da, neurri handi batean, terapia (farmakoak edo dieta) ez betetzearen ondorioz.

173. ¿Cuál de las siguientes opciones considera que es falsa?

A - Los pacientes que presentan insuficiencia cardiaca con una disfunción sistólica tienen un pronóstico peor que aquéllos con una función sistólica normal.

B - Los Péptidos natriuréticos son eficaces para detectar a pacientes con disfunción sistólica del ventrículo izquierdo.

C - La mejor exploración complementaria en el paciente anciano en el que se sospecha insuficiencia cardiaca es el ECG y la Radiografía de Tórax.

D - El incumplimiento terapéutico (fármacos o dieta) es responsable en gran medida de las reagudizaciones de la Insuficiencia Cardiaca crónica en pacientes ancianos.

174. Zer da iktus ondorengo fasea?

A - Dardar fasea da, fase tonikotik fase klonikora igarotzekoa.

B - Estupore aldi bat da, hipotoniaz, gehiegizko listu-jariatzeaz eta maskuri-ihesaz gertatzen dena, normaltasuna pixkanaka berreskuratu artekoa.

C - Mioklonia simetriko nahiz asimetrikoak agertzea.

D - Arnasbehera behartu bat da, sabelaldeko muskuluen uzkurdura tonikoak eragindakoa.

174. ¿Cuál es el significado de FASE POSTICTAL?

A - Fase vibratoria o de transición de la fase tónica a la clónica.

B - Periodo de estupor con hipotonía, sialorrea e incontinencia vesical hasta llegar a una recuperación gradual de la normalidad.

C - A la aparición de mioclonías, simétricas o asimétricas.

D - Expiración forzada por contracción tónica de musculatura abdominal.

175. Miastenia larriaren zein aldaera da arinena?

A - Ardatz-muskuluen erasana.
B - Begi-muskuluen erasana.
C - Aho-faringeko muskuluen erasana.
D - Gorputza-adarren muskuluen erasana.

176. Pertsona batek nekrosi iskemikoa du, ez da ateroenbolismoaren, enbolismo arterialaren, Raynaud gaisotasunaren edo baskulitisaren ondorio, ibiltzea galarazten dio eta ez zaio tratamendu kirurgikoa aholkatzen. Zer klase eta gradukoa da?

A - 1 klasekoa: % 0.
B - 2. klasekoa: % 1etik 24ra.
C - 3. klasekoa: % 25etik 49ra.
D - 4. klasekoa: % 50etik 70era.

177. Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapena eredu integral batean oinarritua dago eta funtzionamendua, desgaitasunak eta osasuna hartzen ditu esparrutzat. Hiru funtsezko osagai ditu, eta horien artean EZ dago:

A - Gorputz funtzioak eta egiturak.
B - Diagnostikoak.
C - Jarduerak
D - Murriztapenak.

178. Zer da CEAPAT?

A - Pertsonen Autonomiaren eta Laguntza Teknikoen Estatuko Erreferentzia Zentroa.
B - Mendekotasunaren Arreta Pertsonalizaturako Estatuko Zentroa.
C - Autonomiaren Sustapenerako eta Mendekotasunaren Laguntzarako Zentro Espezializatua.
D - Irisgarritasunaren eta Laguntza Produktuen Estatuko Zentroa.

179. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen eskumen mailari dagokionez, zein da erantzun zuzena?

A - Etxez etxeko laguntza zerbitzua udal eskumenekoa da.
B - Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa foru eskumenekoa da.
C - Gizarte-larrialdietarako koordinazio-zerbitzua udal eskumenekoa da.
D - Erantzun guztiak zuzenak dira.

175. ¿Qué forma clínica de la Miastenia Gravis se considera más leve?

A - Compromiso de la musculatura axial.
B - Compromiso de musculatura ocular.
C - Compromiso de musculatura orofaringea.
D - Compromiso de la musculatura de las extremidades.

176. Si un paciente presenta necrosis isquémica no debida a ateroembolismo, embolismo arterial, Raynaud ni vasculitis que le impide deambular y no está indicado el tratamiento quirúrgico, ¿a qué clase y grado pertenece?

A - Clase 1: 0 %.
B - Clase 2: 1 a 24 %.
C - Clase 3: 25 a 49 %.
D - Clase 4: 50 a 70 %

177. La Clasificación Internacional del Funcionamiento (CIF) está basada en un modelo integral del funcionamiento, la discapacidad y la salud. Consta de tres componentes esenciales entre los que NO se incluye:

A - Funciones y estructuras corporales.
B - Diagnósticos.
C - Actividades.
D - Restricciones.

178. ¿Qué es el CEAPAT?

A - El Centro de Referencia Estatal de Autonomía Personal y Ayudas Técnicas.
B - El Centro Estatal de Atención Personalizada a la Discapacidad.
C - Centro Especializado de Promoción de la Autonomía y Apoyo a la Discapacidad.
D - Centro Estatal de Accesibilidad y Productos de Apoyo.

179. En relación con el nivel competencial de servicios y prestaciones del Sistema Vasco de Servicios Sociales es CIERTO que:

A - El servicio de ayuda a domicilio es de competencia municipal.
B - La prestación vinculada al servicio es de competencia foral.
C - El servicio de coordinación de urgencias sociales es de competencia municipal.
D - Todas las afirmaciones son ciertas.

180. Bizitzaren Amaierako Arretaren oinarrizko alderdiei dagokienez, zein da zuzena?

A - Sedazio aringarriak ez du itzulezina izan beharrik.

B - Sedazio terminalak edo agonian egiten den sedazioak kontzientziaren galera sakona dakar eta itzulezina izan ohi da.

C - Aurretiazko azken-nahia edo bizi-testamentua paziente orok balia dezakeen eskubide bat da, eta, haren bidez, idatzita uzten dira, norbera erabakitzeko gai ez denerako, etorkizunean diagnostikoari, terapiari edo beste zenbait gairi buruz hartu beharreko erabakiak.

D - Guztiak dira zuzenak.

181. Zahartzen garen heinean, aldatu egiten dira loaren patroia eta egitura. Zein da erantzun zuzena?

A - Murriztu egiten dira lokartzeko denbora, gauetan esnatzen garen aldiak eta eguneko lo kuluxkak.

B - Denbora gehiago ematen da ohean, eta gaueko loa ere luzatu egiten da.

C - Zahartu ahala REM loa murriztu egiten da, gauez denbora gutxiago ematen dugulako lotan.

D - NREM loaren III. eta IV. faseak luzatu egiten dira adinarekin.

182. Noiz ebaluatu behar da gaixotasuna neurologiko batek sortutako desgaitasuna?

A - Nahasmendua fase akutuan dagoenean.

B - Nahiz ez diren entseatu bitarteko terapeutiko guztiak.

C - Kuadro klinikoa egonkortzat jotzen denean eta tratamenduari erantzuten ez dionean.

D - Pazienteak eskatzen badu, gertakari bakarra jasan duelako.

183. Zein EZ da jaiotza osteko arrisku-faktorea haurren garuneko paralisian?

A - Garezurraren trauma.

B - Deshidratazio larria.

C - Umetoki barneko hazkunde atzeratua.

D - Infekzioak (meningitisa, entzefalitisa).

184. Hauetako zein EZ da arrisku faktore aire-fluxuaren buxadura kronikoarentzat (AFBK)?

A - Tabakismoa.

B - Ikatz minetan, zementu fabriketan edo kotoi sailetan lan egin izana.

C - Alfa-1-antitripsina gehiegi izatea.

D - Maila sozioekonomiko apala.

180. Respecto a cuestiones básicas en la Atención al Final de la Vida, señale la respuesta correcta:

A - La sedación paliativa no tiene por qué ser irreversible.

B - La sedación terminal o sedación en la agonía conlleva una disminución suficientemente profunda y previsiblemente irreversible de la conciencia.

C - Las voluntades anticipadas o testamento vital es un derecho que puede ejercer todo paciente para dejar constancia por escrito de las medidas que se deben tomar en un futuro con él tanto desde el punto de vista diagnóstico como terapéutico u otras directrices, en el caso que él no pueda decidir.

D - Todas son ciertas.

181. A medida que envejecemos, existen cambios en el patrón y en la estructura del sueño. Señale la respuesta correcta:

A - Disminuye el tiempo en dormirse, los despertares nocturnos y las cabezadas diurnas.

B - El tiempo en cama aumenta y el tiempo en sueño nocturno aumenta.

C - Con la edad disminuye el sueño REM, como consecuencia del menor tiempo de sueño nocturno.

D - Las Fases III y IV del Sueño NREM aumentan con la edad.

182. ¿Cuándo debe evaluarse la discapacidad causada por enfermedad neurológica?

A - Cuando la alteración se encuentre en la fase aguda.

B - Aunque no se hayan ensayado todas las medidas terapéuticas oportunas.

C - Cuando el cuadro clínico puede considerarse estable y que no responda al tratamiento.

D - Si lo solicite el paciente por haber sufrido un único episodio.

183. ¿Cuál de los siguientes NO es un factor de riesgo postnatal de Parálisis Cerebral infantil?

A - Traumatismo craneal.

B - Deshidratación grave.

C - Retraso crecimiento intrauterino.

D - Infecciones (meningitis, encefalitis).

184. Son todos los siguientes factores de riesgo para la obstrucción crónica al flujo aéreo (OCFA) excepto uno:

A - El tabaquismo.

B - Exposiciones laborales como trabajadores de minas de carbón, fábrica de cemento o campos de algodón.

C - Exceso de alfa-1-antitripsina.

D - Nivel socioeconómico bajo.

185. 39/2006 Legeak, abenduaren 14koak, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak, arreta eskaintzeko banan-banako programa arautzen du. Esaldi hauetatik zein da zuzena programa horri dagokionez?

A - Arreta eskaintzeko banan-banako programa baliozkoa da Estatuko lurralde osoan.

B - Erabiltzaileak aukeratzen dituen zerbitzu eta prestazioak jasoko ditu beti.

C - Administrazioak bere kabuz berrikusi dezake, araudiak zehaztuko duen aldikotasunez.

D - Gutxienez 2 urtez behin berrikusi behar da.

185. Respecto al Programa Individual de Atención (PIA) que se regula en la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia:

A - El PIA tiene validez en todo el territorio del Estado.

B - Recogerá siempre los servicios y prestaciones que la persona usuaria elige.

C - Puede ser revisado de oficio, con la periodicidad que se determine en la normativa.

D - Se debe revisar al menos cada 2 años.

186. Zer portzentaje erantsiko zaio bizkarrezurreko lesio bati, hiru mailatan baldin badago, ebakuntza bi bider egin badute eta hondar mina eta zurruntasuna utzi badu?

A - % 30.

B - % 1 maila bakoitzeko eta % 2 bigarren ebakuntzagatik.

C - Nahasmendu espezifikoari eta mugimendu murrizketari dagozkien desgaitasun portzentajeen konbinazioa.

D - Maila bakoitzean ateratako desgaitasun portzentajeen konbinazioa.

186. ¿Qué porcentaje se le añadirá a una lesión en la col. vertebral a tres niveles, operada en dos ocasiones con dolor y rigidez residuales?

A - 30 %.

B - 1 % por cada nivel y un 2 % por segunda operación.

C - La combinación de los porcentajes de discapacidad correspondientes al trastorno específico y a la limitación de movimiento.

D - La combinación de los porcentajes de discapacidad obtenidos en cada nivel.

187. Presbiakusia da populazio geriatrikoaren entzumen-gaitz zabalduena. Zein da erantzun zuzena?:

A - Hastapen maltzur bat du, ez da inoiz zakarki hasten.

B - Hastapenean, zailtasunak ageri ohi dira soinu akutuak entzuteko (telefonoaren txirrina, txoriak).

C - Guztizko kurba apurka-apurka beheratzen da, eta maiztasun akutuen bilaterala jaisten da, soinu baxuak gordetzen diren bitartean.

D - Erantzun guztiak zuzenak dira.

187. La presbiacusia es la afección ótica más popular en población geriátrica. Señale la respuesta correcta:

A - Tiene un comienzo insidioso, nunca se inicia bruscamente.

B - Precozmente aparecen dificultades para la audición de sonidos agudos (timbre del teléfono , pájaros) .

C - La curva total desciende gradualmente y bilateral de las frecuencias agudas con conservación de las graves.

D - Todas son correctas.

188. Sei hilabetetan, zein izango litzateke "alarma zeinu" bat haurraren garapen normalari dagokionez?

A - Gorputz-adarren hipertonia.

B - Erreflexu primarioek irautea.

C - Lepoaren eta enborraren hipotonia.

D - Guztiak dira alarma zeinu.

188. A los seis meses, ¿cuál de las siguientes sería una "señal de alarma" en el desarrollo normal del niño?

A - Hipertonía de miembros.

B - Persistencia de reflejos primarios.

C - Hipotonía de cuello y tronco.

D - Todos son signos de alarma.

189. Zein adierazpen dermatologiko da ugariena Bourneville-ren esklerosi tuberosoan?

A - Aldi baterako baba handi pruriginosoak.

B - Lizar-hostoen antzeko forma duten orban hipokromikoak.

C - «Kafesne» koloreko orban hiperkromikoak.

D - Dermatitis seborreikoa.

189. ¿Cuál es la manifestación dermatológica más frecuente en la Esclerosis Tuberosa de Bourneville?

A - Habones temporales pruriginosos.

B - Máculas hipocrómicas de forma parecida a la "hoja de fresno".

C - Máculas hipercrómicas tipo "café con leche".

D - Dermatitis seborreica.

190. Hauetako zein EZ da artrosiaren arrisku faktorea?

A - Adina.
B - Giltzaduretan behin eta berriro mikrotraumatismoak eragiten dituzten lanak.
C - Gizonezkoa izatea.
D - Obesitatea.

191. Zer gradukoa izango da pertsona bat, baldin eta bere immunoeskasiarekin lotuta urtean 3 gertakari baino gutxiago baditu, ospitaleko mediku arreta eskatzen dutenak gutxienez 24na orduz, edota urtean 30 egun baino gutxiagotan?

A - 1 klasekoa: % 0.
B - 2. klasekoa: % 1etik 24ra.
C - 3. klasekoa: % 25etik 49ra.
D - 4. klasekoa: % 50etik 70era

192. Paziente zahar baten esfera klinikoaren balorazio bat egiteko garaian, funtsezkoa da zaharren tipologiak eta horien gaixotasunen alderdi klinikoak ezagutzea. Zein da erantzun OKERRA?

A - Sindrome geriatrikoak gaixotasun jakin batzuek eragindako ezaugarri multzo bat dira, eta ohiko gaixotasunetan izaten diren ezaugarri patologikoen bitartez adierazten dira.
B - Esfera klinikoa da balorazio geriatriko integral batean kuantifikatzen zailena, zaharrek gaixotzeko modu berezia izaten dutelako, gaixotasuna modu atipiko eta zehaztugabe batean adieraziz.
C - Zahar ahul bat da bere independentziari modu prekarioan eusten diona eta mendeko egoerara pasatzeko arrisku handiena duena.
D - Zahar osasuntsu bat da adin handiko pertsona bat, gaixotasun objektibagarririk ez duena, baina jarduera instrumentalak egiteko autonomia galtzen hasia dena.

193. Zein esaldi da zuzena ezkutuko arantza bifidoari dagokionez?

A - Orno-disrafismo mota ugariena eta konplexuena da.
B - Hezur-muina irekia eta lautua ageri da bular-gerrialdean.
C - Paraplegia erabatekoa da, ibiltzeko ezintasun osoa.
D - Asintomatikoa izan ohi da, gerri-sakroaldean kokatu ohi da.

190. ¿Cuál de los siguientes NO se corresponde con un factor de riesgo (FR) de enfermedad artrósica?

A - Edad.
B - Trabajos que implican microtraumatismos repetidos sobre la articulación.
C - Sexo masculino.
D - Obesidad.

191. A qué grado pertenece un individuo que presenta menos de 3 episodios anuales de enfermedades relacionadas con su inmunodeficiencia, que precisan atención médica hospitalaria durante al menos 24 horas cada uno o durante menos de 30 días al año:

A - Clase 1: 0 %.
B - Clase 2: 1 a 24 %.
C - Clase 3: 25 a 49 %.
D - Clase 4: del 50 al 70 %.

192. A la hora de realizar una valoración de la esfera clínica en el paciente anciano es fundamental conocer la tipología de ancianos que hay y los aspectos clínicos de sus enfermedades. Indique en relación a ello, la respuesta que considere FALSA:

A - Los Síndromes Geriátricos son un conjunto de cuadros originados por la concurrencia de una serie de enfermedades que tienen su expresión a través de cuadros patológicos no encuadrados en las enfermedades habituales.
B - La esfera clínica es la más complicada de cuantificar con la valoración geriátrica integral por la peculiar forma de enfermar del anciano con una presentación atípica e inespecífica de la enfermedad.
C - Anciano frágil, es aquel anciano que conserva su independencia de manera precaria y que se encuentra en situación de alto riesgo de hacerse dependiente.
D - Anciano sano, se trata de una persona de edad avanzada con ausencia de enfermedad objetivable, pero que comienza a tener pérdida de autonomía para la realización de actividades instrumentales.

193. ¿Qué afirmación es VERDADERA respecto a la Espina Bífida Oculta?

A - Constituye el tipo más frecuente y complejo de disrafismo espinal.
B - La médula se observa abierta y aplanada en la región toracolumbar.
